

ARRASATE

PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10. C
ARRASATE

2

Arrasate 1989ko Irailak 29, 34. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Oñatin Kilometroak 89



Etxe-Aundi
Restaurant

Torre Auzo, 9 - Teléfono 943/781956 - OÑATI

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak	458744
-------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	797844
.....	797678

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hifugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarteak	798777

29 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "El terror no tiene forma". 7 eta 9,30etan.

Novedades: "Carifio he encogido a los niños". 10,30etan.

Zinea aire zabalean: "El principio del Arca de Noe". Monterronen 10etan.

— Garagartzako jaiak: "Eguzki" rekin dantzaldia, gaueko 10etan.

Artifiziozko suak.

— Oñatiko jaiak:

• Foru Enparantzan Oñatiko Musika Bandak eskainitako kontzertua. Eguerdiko 1etan.

• Txirrindu-Lasterketa, lehen mailako txirrinulari afizionatuekin. Arratsaldeko 3,30etan.

• Oñati eta Iraugi abesbatzen emanaldia. Santa Ana Antzokian Arratsaldeko 7,30etan.

• "VI. Mikel Deunaren Saria" eskuzko pilota partiduen azken saioa.

• Dantzaldia "Basaki" taldearekin. 10,30etan.

• Rock gaupasa: BAP, VOMITO, ZERBIZIO. Gauerdiko 3etatik aurrera.

— Guardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

30 LARUNBATA

— Zinea: Alai: "Karate Kid" 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "El Oso". 5, 7,30 eta 10,30etan.

— Garagartzako jaiak:

• "Txikitxu" dantza taldearen erakustaldia, arratsaldeko 5,30etan.

• Sokamuturra eta pottokak, arratsaldeko 7etan.

• "Kaixo" taldearekin dantzaldia, gaueko 10etan.

— Oñatiko jaiak:

• Jazz jaialdia "Zubipeco Swing" taldearekin. Arratsaldeko 7etan.

• Dantzaldia "Izan" taldearekin. Gaueko 10,30etan.

— Guardiako farmazia: Español, Iturriotz.

1 IGANDEA

— Zinea: Alai: "Karate Kid". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "Carifio he encogido a los niños". 5, 7,30 eta 10,15etan.

— Garagartzeko jaiak:

• Herri bazkaria, eguerdiko 2,30etan.

• Erromeria trikitilariekin, gaueko 9etan.

— Kilometroak 89: Kilometroak festa eguna. Ekitaldi desberdin ugari zirkuitoan zehar.

— Guardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

2 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Karate Kid" 7 eta 9,30etan.

Novedades: "Carifio he encogido a los niños". 7,30etan.

— Oñatiko jaiak:

• Bazkari herrikoia. Eguerdiko 2,30etan.

• "Egan" taldearekin dantzaldia. Gaueko 10,30etan.

— Guardiako farmazia: J. A. Irizar. Erguin.

3 ASTEARTEA

— Zinea: "Karate Kid" 7 eta 9,30etan.

— Guardiako farmazia: L. Amezua. Santa Marina.

4 ASTEAZKENA

— Guardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

4 OSTEGUNA

— Guardiako farmaziak: A. M. Morales. S. Andres.

ERAKUSKETAK

— Dantza jantziak: Oñatiko Unibertsitatean eta Klaustroan. Urriaren 1arte

— Corpuseko kofradiako Apostoluen eta S. Migelen jantzi erakusketa: Oñatiko Unibertsitatean eta Klaustroan. Urriaren 1 arte.

— Carlos Galarraga: Pintura erakusketa. 16 oieo: Bergarako txokoan.

IRTEERAK

— Kilometroak 89rako autobusak: AED elkarteak antolatuta Urriaren 1ean Oñatira joateko autobusak izango dira. Izen ematea AED elkartearen lokalean. Tfnoa: 79. 54. 46

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Ruth Otaduy

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:
J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunik.



Astoak

Ez naiz bi zangotakoei buruz ari. Horiek gaurko lerroaldi hauek mugatzen dituzten marretatik kanpo geratzen dira. Ordea, lau hankatako asto errukarriak ekarri nahi izan ditut orrialde honetara, animalia horiek jasaten ari diren egoera salatu asmoz edo, astoak pixkanaka pixkanaka gure artetik desagertzen ari baitzaizkigu.

Zenbat urte dira, bada, lauoineko apal horiek Arrasateko kaleetatik zehar, egunero egunero dozenaka ikus zitezkeela? Baserrietatik jaisten zirelarik, esne, azokarako barazki eta ohizko baserri produktoak ekartzen zituzten, goruntz-berriz-baserrietako bizimodu arruntak ezinbestekoak zituen lehengai arrotzak jasotzeko. Maalako okindegi ondoan, Sinforenean-Zerkaosteta nahiz Iturrioz aldetik, Zaldibarreko frontoiaren estradan... uzten zituzten lotuta, ugazabak euren salerosketara zihoazen bitartean. Asto gorotzak, bestalde, kaleetako apaingai.

Non geratu dira astoak? Non animalia horien irudi langiletsua? Hainbat gauzarekin bezala, garape-

nak zokoratu ditu. Baserrietako ikui-luetan hutsik dauzkagu astoen ohan-tzak, atarteraino iristen den bide asfaltatua hutsunearen ziorik garrantzitsuena delarik. Gure seme-alabek ezagutzen dituzten asto bakarrak Flannery-ren lagun diren Olegari, Patxiku, Mikel eta Josetxo ditugu. Juan Ramon Jimenezek nekez aurkituko luke gure zelaietan bere Plate-roren ondorengorik. Agian, "Suzuki" edo "Land Rover"ak hartu beharko lituzke bere olerkien gaitzat, tramankulu mekaniko horiek somenerako pizgailu direla suposatuz; eta hori gehiegi suposatzea dela uste dut.

Ez al dute astoek gizarte honen arretra serioagorik merezi? Non dazta gure sentsibilitatea? Ez al genituzke-desagertzeaz daudelarik-balea, foka, hartz, arrano eta beste hainbat espezieren salbamendua kanpainetan sartu beharko?

Musakolako jaietarako prestatua izan zen eransgailuan asto batek ostikada ederra eskaintzen zion heren-sugeari. Biak fikziozko pertsonaiak izan ez daitezen, zain dezagun astoa eta demaiogun aukera gure artean bizitzen jarrai dezan.

Josemari Velez de Mendizabal



enpresa
bazkariak
eta
famili bilerak



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ASA

ASEGURUAK

Zeuren ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila

... etab

**ZURE ESANETARA
GAUZKAZU!!**

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 79 69 00

ARRASATE

Barrutik aldizkarirako

Horma txuri-horiskak; gure itsas-mendien argazki bat jartzeko ezintasuna, ezta senide edo lagunena ere. Leiho azpian erantsita mahai kaxka-ju bat bere lurtean jositako bankilu besogabekoarekin eta, aurrean, hiru metrotara pareta luza. Mahai gainean belauniko ipini -zutirik ez baita ikusten-, aurpegia barroteen kontra sartu eta zeruaren karratu txiki bat agertzen da. Noizean behin izarren bat ikustea lortu badut ere, ez dago posizio txar horretan denbora luzean egoterik; eta berriro jeisten dizkiot begiak eguneroko bakardadeari.

Irratia badut. Laguntasunik eman beharrean, aspergailu hutsari gustora su ta fuego emango nioke. Gobernuak oso ondo ikasi du bere komunikabideak erabiltzen, eta kapitalismoaren buruan sartzeko ari da ondo saiatzen. Gure Herrian behintzat ez dute lortuko, ondo ezagutzen baititugu beren trikimailuak. Sikiera musika ona harrapatzerik ahal izango banu, baina ez, horixe bai ezetz.

Goizeko zazpi t'erdietan argia pizten dute, bederatzietan itzaltzeko; hamabi ordutan zelda ilunean izango dut, gaueko bederatzia arte. Zeldako ixiltasuna, bakardadea, inorekin hitz egiteko aukerarik ez edukitzea..., ezin da funtzionarien presentziarekin konparatu. Ez ditudanean ikusten lasaiago aurkitzen naiz. Giltzaren hotsak atearen kontra sentitzean urduritasunak jaten nau. Zer nahi izango dute oraingoan?. Kaxtea bada: dena ankar gora utziko didate, ordu erdi bat behar izango dut berriro gauzak bere tokian uzteko, haiek ez baitute horretan denbora alferrik galtzeko. Egunean zehar buelta asko emango dute; bi liburu bakarrik eduki dezakedala esateko, bi egunkari bakarrik, astean bi gutun bakarrik idazteko; zeldatik ateratzeko ez eramateko kremaierarik ez bumizko botoirik, bestela galtzak erantzi araziko dizkidatela. Gero arropakin sartuko dira, soilik eguneko eduki dezakedala aginduz; gutxi dudala konprobatuz horrela utziko didate momentuz, baina abixupean nagoela esanez. Asperturik daude-

nean libertitzera etorriko dira eta beren eskubide osoaz arropak hartu, eta saguz beterik dagoen trastero batera eramango dute.

Egunero patiora ateratzeko rake-ta pasako didate, zelda eta gauzak katxeatu ondoren. Han dutxatuko naiz, gero ordubeteko saioa: hamabost pausotako bueltak, funtzionariaren begiek gainetik kendu ezinik, tenis partiduan ikusleek le-txe; ni raketik gabeko jokalaria bihurturik. Leiho baten preso sozial bat ikusten badut -politikoa bakarra bait naiz-, eta kaixo esatera hurbiltzen banaiz, laster jarriko dute erre-medioa; neska, atzekaldera ematen duen beste zelda batera eramango dute eta niretzat betikoa: parte.

Beste euskal preso batzuk egoera askoz larriagoan daude; edozein momentutan jipoitua, egun osoa zeldan patiora irten gabe... Hau da dispersioa: isolamendu bizia, bakardadea nagusi, inongo eskubiderik ez, intimitate eza, mesprexatuak, tratu txarretan. Trapu zaharrak bezalaxe tratatuak; Arzalluz-ek eta enparauk ez dagoela bortxaketarik esango dute.

Baina "Baader Meinhoff"-eko militanteak bezala akatzen bagaituzte ere, ez dezatela pentsa Herriak etsi egingo duela, Euskadi libro izan arte burrukak jarraituko bait du. Eta horiek ez dute denbora luzean beren poltronetan jarraituko IRABAZI DUGULAKO.

*Edurne Iturbe
Abuztuak 23*


Vic-etik Arrasate Press-era

Arrasateko antolatzaile eta lagunei gure eskerrak beroena, Catalunya eta gure etxera, hain zuzen ere, "Arraste press" aldizkaria heltzen zaigulako. Gutxi dira euskaraz ezagutzen ditugun berbak (denboraz hobetu daitekeena), baina pozgarria da aldizkaria jasotzea.

Berriz ere eskerrak eman zuen eskerronagatik.

*Perez Arosa familia.
Vic (Barcelona)*

Pertsona fisikoaren errentaren aitoren sistemari bidezko deritzozu?



Pako Altube
(langilea)

Ez dut uste bidezkoa denik, dirua duten pertsonak, eskakeatu eta ez ordaintzeko era beti aurkitzen dute eta.




Herminia
(etxeandrea)

Ez da bidezkoa. Nik esaterako lau semealaba dut. Nahiko justu samar ibiltzen gara urtean zehar, eta hala ere, zerbaitetarako gordeta duzun diru apurra kentzen dizute. Ez dut esan nahi ordaindu behar ez denik, baina beno...



Maria Elena Eriz
(ikaslea)

Gauza handirik ez dakit, baina jendeak larregi ordaintzen duela eta ordaintzen den diruarekin gauza handirik egiten ez dela, denon ahotan da.



Jose Iglesias
(langilea)


Hain txarto ere ez dago. Ordaintzen dena ez da exageratua eta pasatzen ez diren bitartean ez dut txarto ikusten.

LENIZ

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai,9

ESKORIATZA-Arana,13



AKADEMIA

BASTIDA

INEM-EK HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
* 250 Pultsazio * Lan administratiboak

TAKIGRAFIA AUDIO

* Ingeles silabiko sistema * 60 ordu
* 100 hitz minutuko

INFORMATIKA

BASIC-COBOL-PASCAL HIZKUNTZA
DATUEN BASEA
ORRI ELKTRONIKOA
TESTUEN TRATAMENDUA

KONTABILIDADEA

* Kontabilidateko plangintza orokorra
* "Calco" eta "Mecanizado" metodoak
* Errekuperazio klaseak

KLASE BEREZIAK

* OHO * LH * IEE
* INGENIERITZA TEKNIKOA * UBI

HELBIDEA: Ferrerías 44, Arrasate
Tfnoa: 797713

Euskadiko Akademia Pribatuei
elkartutako kidea

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



J. M. Heriz

axuleiua

Porcelanosa, Azuui, Pamese...
Otalora Lizentziatua. Arrasate

“Euskera eta euskal irakaskuntza bultzatzea da Kilmetroak 89 egunaren helburua. Izan ere, euskal irakaskuntzak azken urteotan zenbait aurrerapausu egin badu ere, oso egoera kezagarria erakusten du. Euskal Komunitate Autonomoan %18,2 da Unibertsitate aurreko mailetan irakaskuntza osoa euskaraz jasotzen duen ikaslegoaren kopurua. Nafarroan eta Iparraldean are larriagoak dira datuak. Guzti hau bultzatu egin behar da, beraz”.

(Lourdes Idoiaga, Oñatiko Txantxiku Ikastolako lehendakarisak “Eguna” astekarian)


“Iaz deliberatu zuten CIESi egunkariari buruzko ikerketa eskatzea. Bertan jakingo zen zer motatako egunkaria nahi den benetan. Duela sei hilabete jaso zituzten Gasteizen emaitzak. Ez dugu haien berririk izan, baina ohituta gaude. Adierazgarria hauxe aldiz: datu horien erabilpenik ez egitea beren probetxurako. Aurretik erabakita zuten proiektuarekin ez ziren bat etorriko nonbait. Tiroa oraingoan ere ustel irten zaielakoan gaude, eta hala behar zuen, ikerketa ongi egitekotan. Zarraroa kultura Sailburuordearen hitzak “Arrasate Press” erako: “Gure zalantza, zuek (“Arrasate Press”) sortarazitakoa, hauxe da: bigarren egunkaria izateko, merezi al du egunkari euskalduna sortzeak, ez al da hobe eskualdeko proiektuak, zuena bezalakoak bultzatzea?”. Lakua tarrei mozorroak jantzi bihurtu zaizkie antza”.

(Josu Landa idazleak “Argia” astekarian)

“Jesus Larrañaga, Fagor taldeko nazioarteko harremanen zuzendaria ez dago horregaitik beldurtuta, baina kezkatuta bai: “asko ari gara kanpora ateratzen, baina ez da gauza bera esportatzea eta, neurri handi batean esportazioak desagertu ondoren bame-merkatu bihurtuko den merkatuan irautea. Ez. Ez da gauza bera. Aldaketa izugarria dago”.

(HABE aldizkarian)

Noiz sortu zen eta zein helbururekin Arrasateko “Escuela de Aprendices”a?



“Escuela de Aprendices” deritzana, 1941ean sortu zen, Cerrajeraren babespean. Haien bultzatzaile nagusiak, Ignacio Chacón, Basterrechea eta Ricardo Oreja, izan ziren. Denak ziren CEDAkoak. Zituzten ideiak hedatzea eta bide batez langilegoaren semei ikasteko aukera eskaintzea ziren haien helburu nagusiak. Zehazki hiru helburu zituzten eskola sortzean: Beren sinismenak hedatzeko bidea izatea, lantegirako profesionalak heztea eta langileei ikasteko erraztasunak eskaintzea. Cerrajera momentu hartan Arrasaten puntako enpresa zen eta bertako langileen semeentzat bakarrik zuzendutako ikastetxea. Ni bertan ikasten aritu zen hirugarren belaunaldikoa naiz. Eskolaren zuzendaritza San Viator kongregazioko fraileen esku zegoen, hauek hezkuntza erlijiosoaz arduratzen ziren eta gai teknikoak Cerrajerako bulego teknikoan lanean zebiltzanen esku zeuden. Teknika, teknologia eta tailer ikasketak jasotzen genituen, giza hezkuntzaz homiturik. Beranduago Don Jose M^a Arizmendiari etorri zen eta berak, bere pentsamoldea azaldu zigun. Eskola gainontzeko herritarrei zabaltzen saiatu zen, baina hau ezinezkoa zela ikusi zuenean Eskola Politeknikoa sortu zuen. Nik uste eskola hau oso garrantzitsua izan zela Arrasaterentzat, haien pentsamoldea edozein izanda ere. Herriko langileei begiak zabaltzeko balio izan zuen, eta neurri handi batean gaur Arrasate dena eskola hari zor zaio. Agian, izan ez balitz ere, gaur duguna izango genuen, baina eskola hark bere hazia utzi zuen.

Jesus Larrañaga

“Escuela de Aprendices”eko ikasle ohia

Arrasatearrok adi!

ARGA altzariak

eraberritze-obrak direla eta, beherapen handiak prezioetan

Zerkaosteta 15, Tfnoa: 79 07 76 Arrasate

A r r a s a t e
u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89




DUO DISEÑO

**OBRAK
BARRUKALDEAK
BULEGO ALTZARIAK
PROIEKTUAK
OSAGIAK**

Iturriotz 21, Tfnoa: 79 28 86 ARRASATE (Gipuzkoa)

TXALAPARTA IKASTAROA BERRIZ!!



Urriaren 21etik abenduaren 30era arte

Larunbat goizean

Plaza mugatuak

Izena emateko: Urriaren 2tik aurrera eta plazak bete arte

Izena emateko tokia: Udaleko Gazte-Zerbitzuan

Doan



• **ARRASATE** •
Eguzki dorrea
80 m²

Sukaldea
 Egongela
 3 logela
 Bainua
 Terraza
 Garajea
 Propano instalazioa
 Berogailu eta ur beroa zentralak

• **ARETXABALETA** •
Puerta Sol
77m²

Sukaldea
 Egongela
 3 logela
 Bainua
 Solaria
 • Ganbara

• **ARRASATE** •
Erdialdean
115 m²

4 gela
 Egon gela 1
 2 bainu
 Sukaldea ekipatua
 Terraza
 Berokuntza zentrala,
 ur-zerbitzu zentrala
 Garajea
 Erropa indibidualeko hedagunea

• **ARRASATE** •
Munar aldea
87 m²

3 gela
 Egon gela 1
 2 bainu
 Sukaldea ekipatua
 Terraza
 Berokuntza zentrala,
 ur-zerbitzu zentrala
 Garajea
 • Ganbara

• **ARRASATE** •
Bizkai etorbidea
82 m²

Sukaldea
 Egongela
 4 logela
 Bainua
 2 ganbara

GUZTIZ JANTZITA!!!

• **ARRASATE** •
Magdalena kalea
 Estudioa
 egiteko
 aproposako lokala
 • 30 m² g. g. b. •

• **ARRASATE** •
TRASPASOAN
Merkatal lokala
(Aranburu jantzidenda)
 PREZIO ETA KONDIZIO
 INTERESGARRIAK

• **ARRASATE** •
Merkatal lokalak
(Salgai edo alokatu)

*Erdiko kalean
 *Ferrerias kalean
 *Olarde kalean
 *turriotz kalean
 *Otalora kalean
 *Erguinen
 *Udalpe kalean
 *Kalealdean (Munar)
 *etab.

• **ESKORIATZA** •
San Pedro 73 m²

Sukaldea
 Egongela
 3 logela
 Bainua
 Ganbara

• **Madrilgo Alcobendasen etxebizitza alokatzen da**
100 m²

Aproposa unibertsitateko ikasleentzako

• **ARETXABALETA** •
Erdi aldean
Duplex 118 m²

• GUZTIZ JANTZITA!!! •

• **ARETXABALETA** •
Aragia salgai

Guztiz jantzita
 Makinaria berria

• **BERGARA** •
Bolu kalea 81 m²
 Sukaldea
 Egongela
 3 logela
 2 bainu
 Berogailu eta ur-bero zentralak
 • Ganbara

• **BERGARA** •
Martokua kalea
75 m²
 Sukaldea
 Egongela
 2 logela
 Bainua
 Ganbara
 • Despensa •

• **GASTEIZ** •
Ortiz de Zarate
kalean
90 m²

Sukaldea
 Egongela
 4 logela
 2 bainu
 Berogailu eta ur-bero zentrala
 Ganbara
 GUZTIZ JANTZITA

• **DONOSTIA** •
Etxebizitza

*Alde zaharrean
 * Amaran
 * Beste zonetan
 • 7.800.000 Pta.tik •

• **GALDEANO** •
(Allin Ballera)
Baserria

2 solairu
 Lurra, 1.000 m² g. g. b.
 Lizarratik 9 km.tara
 Urbasako bidean

• **ARETXABALETA** •
eta BERGARA
Merkatal lokalak

• **COSTA DORADA** •
Salou, Canbrils, Miami Playa

APARTAMENTUAK ITSASOARI
 BEGIRA
 • 6.800.000 Pta.tik •

• **MIAMI PLAYA** •
(Costa Dorada)
Bungalow

Sukaldea
 Egongela
 2 logela
 Bainua
 Jardina



Anboto

ADI !!!

ANBOTO Agentzia Inmobiliariaren Zerbitzuak, hau da, Finantzarioak, Juridikoak, Fiskalak, eta bestelako Zerbitzu Inmobiliarioak, AGENTE DE LA PROPIEDAD INMOBILIARIA Kolegioaren babespean eskaintzen dira.

Etzazu onartu, ezta Komisoririk ordaindu ere, guk ematen dugun zerbitzu eta lege-babesa ematen ez duen bestelako eskaintzarik.

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
 AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

J. Vicente Fraile Medina Inmueble jabegoaren Agentea
 Iturriotz kalea 11. Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

prentsaren begia

OSTIRALA 22

CORREO: "Deba Garaiko udalerrriak etapa berriaren aurrean beren zerga-politika bateratzen saiatuko".

DEIA: "40 familia" pobretasunaren aurkako laguntza-planean".

DV: "Txindoki Dorrean kokaturik dagoen Ahizke-Cim hizkuntz zentro berriari hasiera eman.

EGIN: "Inauguratuta Arrasateko Hizkuntz Eskolaren lokal berriak".

LARUNBATA 23

CORREO: "Arrasateko Udalbatzak Udaletxearen birmoldaketa aztertu eta ikusiko astelehenean".

DEIA: "Musika-bandak herriko kaleak zeharkatuko bihar".

DV: "Udalako eskola zaharrean ingurugiro-zentroa sortuko".

EGIN: "1989ko aurrekontua 230 milioitik gorako aldaketa izango".

IGANDEA 24

CORREO: "Arrasateko Udalak 20 milioi emango industrialde berriari taberna-jatetxe bat bultzatzeko".

DV: "Lehen mailako Asistentzi Zentroa Gureako orubean eraikiko".

EGIN: "Iturripeko kiroldegia oinarritzko proiektua aztertuko".

ASTEARTEA 26

CORREO: "Deba Garaiko Udal Elkartearen kortsorazio bakarreko alorrean jarraitzeko prest".

DEIA: "Famili eta Gizarte-Heziketarako zentroan zenbait ekintza".

DV: "Erdiko kaleko denda batean izandako sutea berez sortu".

EGIN: "Udal Elkartearen kortsorazioaren estatutuak aldatzeko eskatu".

ASTEAZKENA 27

CORREO: "Denbora eskasiak eragotzi Deba Garaiko udalek aurrera egin dezaten berdintasun fiskalerantz".

DEIA: "Deba Garaiko Mankomunitatea akordio baten bila".

DV: "Udal Kiroldegiak oraindik akats ugari instalazioetan".

EGIN: "Udal aurrekontuen aldaketak ostiralerako plenora".

OSTEGUNA 28

CORREO: "Herri Lanetarako Kontseilariordeak gaur azalduko Arrasaten Deba Garairako Errepideen Plan Orokorra".

DEIA: "Garagartz auzoak atek ireki aste honetan".

DV: "Igandean 50 urte beteko, dagoeneko desagertutako UCEMeko Escuela de Aprendizicesek".

EGIN: "Buzkantzak prest daude".

Usteak uste...

Udazkenaren eskutik, aurrekontuak aldatzeko garaia heldu zaigu. Udaleko batzorde gehienek batzar ugari egin dute beharrak eta baliabideak aztertuz partidak zehazteko. Azkenean 230 miloi pta. baino gehiago beharko dira aldaketa guzti hauek sartzeko, baina diru hori estaltzeko modua ere topatu da.

Dirudienez adostasuna dago gai gehienenguek inguruan, bitan ezik, Ferialeko pilotalekuan eta Kataiden egingo den jatetxearen inguruan. Bigarren kasuan, zenbaitek ez duelako garbi ikusten udalaren papera era horretarako negoziotetan. Nabardura hauen gainera, hala ere, garrantzitsuena lortu den adostasuna maila izango litzateke. Erabakiak hartzeko ordua da eta hartzen ari dira. Gehienok ados bagaude, hainbat hobeto.

Garraio komunikabideei dago-kienez, oster, inork ez daki ezer, eta U-29ko hauteskundeak direla medio, hartu beharreko erabakiak sine die atzeratuko dira. Ondoren, ministrari aldaketak, egitasmoen berrazterketa, koalizioen baldintzak etab. etorriko dira. Nahiko panorama beltza gure errepide, autobia, autoestrata eta trenentzat. Arrasate zurrumbilo horren begian dago eta oraingoz inork ez dio behar bezalako erantzunik eman. 1992 dontsua etorriko da eta deskuidatuz gero hirugarren mundu mailako azpiegiturekin segituko dugu zulo honetan barrena.

Joxe Aranzabal

PEÑACOB
Auto-Eskola
Zarugalde, 46
Tfnoa: 79 29 93
79 14 01
ARRASATE

PUB HAIZEA
arrasate

J. Elortza eta B. Atxaga Oñatin

KILOMETROAK 89-aren ekin-tzen barruan hitzaldi bat eskeini zuen Jerardo Elortza irakasleak Oñatin, "Oñatieraz idazterakuan sortzen diran arazuak" izenburupean.

Oñatieraz idazteko norma bat, lege batzuk finkatzearen beharra azaldu zuen. Hitzaldian zehar adibide mordoxka eman zuen. Adibide hauetan garbi ikusi ahal izan zen zenbaterainoko aldaketak egon daitezkeen testu bat idazterakoan baldin eta ez bada arautzen idazkera hori.

Hizlariaren ustez grafian ez da komeni hizkuntza estandarretik, euskara batutik gehiegi aldentzea, etenik sortzea. Dena den, idazkera

transkripzio fonetiko hutsa ez denez, zilegi da, bere ustez, neurri bateko urrunketa. Garbi geratu zen ere agertzen diren zalantzetako asko ez direla Oñatiko euskerara mugatzen, antzerako arazoak sortzen direla bai Euskara batuan eta bai gainerako hizkuntzetan ere. Hor dago, kasuak kasu, egun hauetan Frantzian ortografia dela eta, gertatzen ari den eztabaida.

Asteazkenean jende dexenteren aurrean Bernardo Atxagak euskal literatura aztertu zuen, Mendebaleko kulturari kokatuz. Gure literatura ingurune horretatik isolatzeko ahaleginak ere aipatu zituen.

Iñaki Galdos

■ Ostiral honetako pelikula

Kultura sailak prestatu dituen zine emanaldiekin jarraituz, irailaren 29an, ostiral gaueko hamarretan "El principio del arca de Noe" filmea ikusi ahal izango dugu.

1997an kokatzen dira fikzio pelikula honetako gertakizunak. Urte horretan, CIAk arma sekretu bat erabiltzeari ekingo dio...

■ Arte hamabostaldia amaitzeaz

San Frantziskoko Kalistrokek sekula baino itxura hobea izan dute egunotan. Baina denborak aurrera egin, eta irailearen 30ean amaituko zaigu herriko 18 artistaren obrak dastatzeko epea.

■ Sukaldaritza AEDn

Urriaren 3an hasita, asteartero arratsaldeko 7etan. Deitu 79 54 46 telefonora.



Filme grabaketa Monterronen

Badirudi zinea egiteko garaia heldu zaigula arrasatearroi. *Arte hamabostaldiaren* barruan, lagun talde bat elkartu eta Monterroneko jauregira hurbildu ziren. Denetik zegoen taldean: Teknikariak, zuzendariak, aktoreak, estrak... Asmoa, jendeari laburmetraia bat egiteko prozesua azaltzea. Gure artistek seguraski ez dute aurtengo Donostiako zinemaldian urrezko kontxa irabaziko, baina hori bai, ederki pasatu zutela aitortu behar. Muntaia egin eta gero, laburmetraia Ospitale zaharreko erakustaldian izan dugu ikusgai. Lehenengo saio honen ondoren helduko dira besteak.

LASAGABASTER

Jantzidenda

*Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



Ferialeko Pilotalekua

Hauxe duzue Javier Ortega arkitekto bilbotarrak Ferialerako diseinatu duen pilotalekuaren maketa. Frontoi honek 330 milioi pta. balio du. 1.100 ikuslerentzako arauzko

frontoiaz gain, hiru edo lau pilotaleku txiki izango ditu, 2 squash, gimnasioa eta goiko aldean taberna. Kokapena primerakoa da eta arkitektoaren hitzetan, aparteko topalekua izan daiteke.

EA hasieratik (joan zen astean ez genuen hau aipatu), HB eta PNV

proiektuaren alde azaldu dira. EE, berriz, kontra, kostua oso handia izanda, uste bait dute Arrasatek beste lehentasun premiagoatsuak dituela. Dena den, joan den asteko Gobernu Batzordeak onartu egin zuen eta urtea amaitu baino lehen lanei ekiteko asmoa dago.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
 Jose M^a Gomez doktorea
 A. Otalora doktorea
 A. Estomba doktorea
 M^a Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulifisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basktomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara
 telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



Ostiraleko plenoan erabakiko dira aldaketak

Aurrekontuen aldaketak

230 milioi pta. pasatxo gehituko presupostuari

Irailaren 29an, ostiralez, Arrasateko Udalbatzaren Plenoa egingo da. Gai zerrendan aurrekontuen aldaketa dago. Aurrikusi denez, gastuak 230.315.585 pta.tan gehituko dira.

Bi kapitulutan gehituko dira gastuok nabarmenki: pertsonalean (ia 80 milioi gehiago) eta inbertsioetan (132 milioi pasatxo). Pertsonalari dagokionez, igoera uste baino handiagoa izan da, lanpostuen balorazioak ere eragin zuzena izan du eta enplegua sustatzeko planak aurrikusi baino lanpostu eta denbora gehia

go hartuko ditu. Horiek dira igoeraren arrazoiak.

Inbertsioen kapituluan Kanposantu berria, Oxifñako zubia, Garibai etxea eta EEEren laguntzarekin martxan jarriko den Mendi Nekazaritza programa sartuko dira. Egitasmo hauek aho batez onar daitezke.

Gastu hauek estaltzeko iazko superabita (27 milioi t'erdia pasa), bestelako gastuen gutxitzea (104 milioi inguru) eta aurten aurrikusten diren sarrera handiagoak (98 milioi t'erdia) erabiliko dira.

Jose M^a Bengoa beato izendatu

Urriaren 1ean Aita Santuak Jose M^a Bengoa Aranguren pasiotarra beato izendatuko du Erromako San Pedro Eleizan.

Angoston egin zen pasiotar fraile, 18 urte zituela. 16 urtez Chicago eta Mexikon zehar ibili zen 1936an.

1936ko uztailaren 21ean, milizianoek Carrion de Calatravan tiroz hil zuten, bere gorpua urputzu batera botatu zutelarik.



JAIOTZAK

Barbero Martin *Jone*
Irailaren 14an
Galarraga Maiztegi *Borja*
Irailaren 19an
Olea Zurbano *Mikel*
Irailaren 24an

EZKONTZAK

Jose Ignacio Aguirre Eguan &
M^a Teresa Arriaran Ormazabal
Irailaren 23an



comercial SUMOFIC, S.A.


ZERBITZU INFORMATIKOAK

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

**DATU-BASEAK
OFIMATIKA
MANTENU-ZERBITZUA**
*Ekipamendu eta programak
*Telemandua

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR


U-29rako gure hautagaiak




Xabier Zubizarreta
HB
Arrasateko Alkatea
Ordezko hautagaia
Senaturako zerrendan.



Jose Luis Elkorro
HB
Begarako Alkatea
3. hautagaia Senaturako
zerrendan



Jose Luis Lana
PSOE
Arrasateko zinegotzia
Ordezko hautagaia
Kongresurako zerrendan.



Bittor Aranzabal
EE
Arrasateko zinegotzia
Ordezko hautagaia
Kongresurako zerrendan.



Koldo Martinez
EE
Medikua
Nafarroako zerrendaburu
Kongresurako.



Xabier Lasaga
PNV
Arrasateko zinegotzia
Ordezko hautagaia
Kongresurako zerrendan.



Eli Galdos
PNV
Oñatiko alkatea
2. hautagaia Senaturako
zerrendan.



Esther Larrañaga
EA
Diputazioko Kultura
zuzendaria
3. hautagaia Kongresurako
zerrendan.



Pedro Mendieta
EA
Aretxabaletako Alkatea
4. hautagaia Kongresurako
zerrendan.

“Eman Zeurea” kanpaina bigarren fasean

Larunbat arratsaldean eman zitzaion amaiera joan zen irailaren 7an hasitako “Eman Zeurea” kanpainaren lehen faseari. Arrasateko polikiroldegian ospatu zen azken jaialdia, Sebastopoleko Titiriteroak eta Imanol Urbie-ta bertan izan genituelarik, animatzaile lanetan.

Ekitaldiaren aurkezlea Juanito Saizar izan zen, eta makina bat ume hurbildu ziren bertara beraien gurasoekin.

Gogoratu orain “tómatalo tú” deritzon bigarren fasea hasiko dela (hilak 27, 28, 29...). Helburua, euskaraz eginiko transmisioa bultzatzea.



comercial SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Jatetxe berria industrialdean

20 milioiko aurrekontua, Udalak onartu bezain laster

Arrasateko Udaleko zenbait alderdik 20 milioiko aurrekontua onartu nahi du, Musakolan eraikitzen ari den industrialdeak jantoki eta taberna propioak izan ditzan.

Industrialdean 30 enpresa txiki eta Eoskiren maxidenda kokatuko dira. Kontutan hartuz gero urte honen amaieran polikiroldegiko jantokia itxi egingo dutela, behar-beharrezkoa da Arrasaten lan egiten duen kanpoko jendeari irtenbide bat eskaintzea.

Idea orain urtebete jaio zen. Udaleko zenbait alderdik garbi ikusi zuen, Arrasaten hainbat zerbitzu eta

prestakuntza hobetu beharra zegoela. Besteak beste, kanpoko 200 bat langileri jatorduak behar bezala betetzeko aukera eman beharrean aurkitu ziren.

Abagune ona aurkeztu zaio orain Udalari, Musakolan eraikitzen ari den industrialdearen kontestuan bere egitasmoa aurrera eramateko.

Obrak amaitu eta gero, Udalak ez du jantokia gestionatzerik nahi. Badirudi enkante edo subasta baten bidez konponduko dutela arazoa, baldintza konkretu batzu betetzen duten entitate edo pertsonen jantoki berriaren kargu hartuko dutelarik.

AHIZKE-CIMek lokal berriak

Irailaren 20an, asteazken arratsaldean inauguratu zituzten AHIZKE-CIMeko lokal berriak, San Andres Auzoko Txindoki dorrean. Saro Manrique de Lara eta Felix Ormaetxea izan genituen hizlari, ongietorria eman eta ikastetxe berriaren asmo eta helburuak azalduz.

200 m2 eta azken orduko irakaskuntz sistemak ikastetxe berri honetan: Bideo gela, irakasleentzako bulegoak, itzulpen bulegoak eta "Self Study Centre" delakoa aurki daitezke bertan.

Ikasleentzako ere abantaila ugari: magnetofoiak, bideoak, ordenadoreak, liburutegia... e.a. erabiltzeko aukera.



X. GOROSARRI eta M. L. TROJAOLA

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritis, espondiloartritis, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00

ENARA OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



-ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Ur-partzuergo elkartu baten bila

Mankomunitatea prest proiektuari ekiteko

Badirudi Deba Garaiko Mankomunitateak begi onez ikusten duela Ur-partzuergo Elkartu bat osatzea. Hasierako asmoa Gipuzkoan Ur-partzuergo bakarria ezartzea bazen ere, Añarbe-Urumea eta Bidasoa sakanetako Mankomunitateek uko egin diote proiektuari.

Gauzak horrela, Deba, Oria eta Urola sakanek jarraitzen dute aurrera Elkarte baten bila. Dena den, oztopo ugari agertzen da akordioa lortzeko bidean. Arazo nagusia, gaur egun bailara bakoitzeko mankomunitateek ordaintzeko orduan erabiltzen

dituzten prezio ezberdinak.

Añarbe-Urumean 26 pta. balio du metro kubiko urak. Bidasoan 28. Deba bailaran 34,5. Oria bailaran 49, eta Urolan 50.

Idea zera da, Gipuzkoa osorako prezioa 33 pta.tan uztea. Noski, hori ederto datorkie orain gehien ordaintzen dutenei, eta benetan txarto besteei. Azken finean solidaritate arazo bat litzateke, eta horren aurrean bakoitzak bere erabakiak hartu ditu. Esan bezala, badirudi Deba garaikoak prest daudela Oria eta Urolakoei laguntzeko.

■ Euskara teknikoa lantzen

Irailaren 25ean hasita eta abenduaren 5era arte, gure bailarako hamazazpi langile kualifikatuk 75 orduko ikastaroari ekingo diote euskara teknikoa lantzeko.

Bigarren aldia da hau Arrasateko Udalak era honetako ikastaroak antolatzen dituela. Helburu nagusia zera da, langile hauek beren lana euskaraz behar bezala egin dezaten posible egitea.

Elhuyar taldeko Tere Barrenetxea izango da irakaslea. Ikasleen artean Arrasateko Udaleko 13 langile (kontu hartzailea, zerbitzu teknikoetako burua, gizarte laguntzailea eta kiroldegiko eta Iturbideko zuzendariak, besteak beste), Gatzagako Antzuolako udal idazkaria eta S. Frantzisko Xabier ikastolako bi administrari.

Ikastaroak bi maila izango ditu, orokorra denentzat berdina, eta berezia, bakoitzak dituen behar espezifikoari erantzungo diena.

■ Mankomunitateak bi ikastaro

Harakintza ikastaroa. Zortzi hilabetez iraungo du eta Gasteizko udalak dituen instalazioetan emango da. Hamazortzi urte gorakoei zuzendua. Garraioa eta gainontzeko gastuak ordainduko dira, baina bekarik ez da emango.

M.I.G. soldaketa: hiru hilabetez, Oñatin seguruenik. Hau ere 18 urte gorakoentzat eta aurreko ikastaroaren baldintza berdinetan.



Jatetxea
GATZAGA

Jaun-andre agurgarriok:

Zuengana natorkizue Arrasateko Olarte Kantoia kalean, 3. zenbakian "Gatzaga Jatetxea" zabaldu dugula esatera.

Jatetxe horrek, goreneko kalitatea du eta beraz, janariak goimailakoak dira. Bestalde, toki zabala da lan-bilerak edo konbentzioak egiteko.

Zuen zain gaude, baita gustokoa izango zaizuelakoan ere.

Olarte kantoia 3. Tfnoa: 79 84 53 Arrasate



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Ofseta
Ferrerias, 23



OSO GAUZA
BEREZIAK

Zerkaosteta 8

■ Kris Zeziaga atxilotua

Larunbat goizez Goardia Zibilak Kris Zeziaga atxilotu zuen Arrasaten. Madrilera eramane eta galdeketak egin ondoren, Carabancheleko espetxean sartu dute.

Atxiloketa asko azken bi asteotan: Igor, Joseba, Xabier, Rafa, Kris eta gero kalean libre utzi dituzten Maria Angeles, Jose Enrique eta Auxi.

Gertatutako ondotz sekula baino mobilizazio gehiago ezagutu ditu herriak. Manifestaldiak ia egunero, eta istilu ugari protestak egiteko orduan. Jende asko kaleratu da egun hauetan, eta agian inoiz baino gazte gehiago.

■ Gudari eguna

Bestalde, irailaren 27an, asteazkena, urtero bezala Gudari eguna ospatu zen. Arrasaten, egunotako tonika jarraituz, jende ugari elkartu zen Gestorek egindako deialdira.

■ Arrasteko Udal Euskaltegiak

Matrikulaldia luzatu du urriaren 6a arte. Maila eta erritmo guztietarako. Informazio gehiago 79 70 77 telefonoan.

■ Ertzantzak 4 gazte atxilotu

Luis M.B., 22 urtekoa, Mercedes G.G., 23, Jose Luis G.G., 29, eta Gregorio B.V., 27 urtekoa dira Ertzantzak Arrasaten atxilotu dituen gazteak. Laurei leporatzen zaie Euskal-Herriko 8 udaletxetan lapurtu izana: Mutriku, Zumaia, Eskoriatza, Placencia, Berriz, Markina, Orozko eta Otxandion hain zuzen ere.

Atxiloketa egiterako unean, Ertzantzak 500.000 pt. aurkitu zien; eta dirudienez Zumaiko Udaletxetik zetozen (bertatik jaso zuten azken lapurketaren berri).

T x a n d a k a

Kooperatibak eta Sta. Agueda salatzen dituen delitu ekologikoa dela eta

Inork Euskal Herriko ingurugiroaren egoera zein den ezagutu nahi badu, bertako hiritatik igarotzen diren ibaiak begiratzea baino ez du, adibiderik argigarrienak bait dira. Gehienak kiratsa darien kloaka, miseria eta gaisotasun iturri eta euriteak direnean uholdeak sortzeko ubide proposak dira.


Gure ibaien egoera negargarria bada ere, administrazioak ez du inolako neurririk hartu eta enpresek nahi duten guztia botatzen dute ibaietara, udalaren oniritziarekin.

Arrasate zeharkatzen dutenak ez dira hobeak, jakina. Aramaixo eta Deba ibaiak osasun iturri eta landare eta abere multzo aberatsaren sorleku izan zirela, gutxi daki.

Gutxi dela, udalak esanda jakin ahal izan dugu (denok bagenekien ere) Ulgor, Lana, Arrasate eta Amat kooperatibek eta Santa Agedako ospitale sikiatrikoak isurkin kutsagarriez betetzen dituztela gure ibaiak, eta ondorioz, isurkin kutsagarriak botatzeagatik, konfederazio hidrografikoan salatu dituzte.

Garbi dago Aramaixo ibaian joan den urtean horrenbeste amurru hiltzea edo perkloretileno edo antzeko sustantzia kutsagarriak oso, zuzenean isurtzea delitu ekologikoa direla. Delitua hor dago eta ondorioz udalak salatu egin behar ditu. Baina salaketa hutsek ez dute ezertarako balio, eta udalek zuzenean isun ekonomikoak jartzeko eskubidea dutenez, hala egin beharko lukete.

Gure ustez, eskura ditugun neu-



Iñaki Jauregialzo*

rri ekonomiko guztiak hartu behar dira zeren, bestela, orain artekoa gertatuko da, hau da, enpresentzat merkeago izango da administrazioak jarritako isun txikiak ordaintzea, depuragailu egokiak jartzea baino.

Salaketa hutsak alferrikakoak dira. Neu-

rri gogorrago eta ahal direnak hartu behar dira. Nork pentsatuko luke!, Arrasateko kooperatibak, itxuraz eredu laudagarri eta praktikan, bai ekologia dela eta baita gainontzeko gizarte nahiz lan arazoetan ere, joera irrazional eta harrapakarien menpe, erabat kapitalista gainera.

Kooperatibetako kontseilu sozialei eta Santa Agedako enpresabatzordeari honako hauek eskatzen dizkiegu:

- Isurtzen diren hondakinei buruzko argibide zehatzak.

- Isurketak bukatzeko beharrezko neurriak hartzeko konpromezua zuzendaritzaren aldetik.

Ingurugiroaren, naturaren babesak denon laguntza behar du. Esker diezazkiegun instituzioei zikintzen dutenen kontrako neurriak. Garbi dezala zikintzen duenak!

Zaindu, babestu eta maita dezagun oraindik dugun apurra. Eska diezaiogun udalari "delitu ekologikoa" izeneko salaketa aipatutako eta ontzeko egoeretan ordain eraztea, enpresek nahi dutena egiten bait dute. Guk, gure aldetik, ibaien arazoaren ardura izaten jarraituko dugu naturaren eta osasunaren onerako.

EKI-ko (Euskadiko antinuklear eta ekologista komiteak) partaidea

MATOR



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

izen propioak

Joan den astelehenean, Monterronen, Arrasateko Telebistarako langileak hartzeko azterketak egin ziren. Denetara 14 gazte aurkeztu ziren, gehienak Andoaingo ikusentzute eskolan ibiliak.



Josetxo Arana, 28, abokatu arrasatearra Eskoriatzako udaleko idazkaria izango da urtebetez, karguan Anparo Osinaga ordezkatzan duelarik. Josetxok Deustuko Unibersitatean ikasi zuen Zuzenbidea. Arrasateko Udaletxean sei hilabetez egon zen lanean eta jo eta ke ari da bere burua euskalduntzen.


Ane Miren Leibar, 20, arrasatearra, "Eiffel dorrea" idazlanagatik, aukeratua izan da Gipuzkoa ordezkatzeko Europako Elkarte Ekonomikoak Bartzelonan urriaren batetik zortzira antolatu duen Gazteentzako Kongresuan. Ane Miren Ingeniaritza ikasten ari da ,3. kurtsoa, Mondragoeko Eskola Politeknikoan eta hainbat sari literarioen irabazlea dugu.

Edurne Iturbe, 23, abokatu arrasatearra da abuztuaren batetik Aretxabaletako udaleko idazkari berria, Arrate Urreta ordezkatzuz. Edurnek Deustuko Unibersitatean ikasi zuen Zuzenbidea. Hauxe da bere lehen lana eta euskeraz polito egiten du.

Nerea Alzelai, 26, urretxuarra da Bergarako Udal Euskaltegiko zuzendari berria. Nereak Euskal Filologian lizenziatu zen Donostiako EUTGn Eibarko Udal Euskaltegian urtebetez irakatsi ondoren, hiru urte daramatza Bergarakoan.

Alberto Garai, 26, mediku arrasatearra Murtziara doa lau egunetarako, Espainiako Kirol Medikuen Federakuntzak antolatu duen 3. Kongresora. Albertok Gasteizen ikasi zuen Medikuntza. Urte t'ardi darama Arrasateko Kiroldegian, kirol mediku lanetan.

Astelehen goizean, 11etan, Arrasateko Notarian bildu ziren **Xabier Zubizarreta** eta **Alfonso Gorroñogoitia**. Bertan sinatu zuten akordioa, zeinen arauera Gizabideak Iturripeko Kirol Instalazioak lagatzen dizkio Udalari. Zati bat betirako, beste bat 40 urterako, eta hirugarrena 3 urterako.



Ezkontza gehienak larunbatez egin ohi badira, **Javi Gonzalez** eta **Pilare Pereda** gazteak ohitura guztiak hautsi eta astelehen batez ezkondu ziren, jaieguna hala ere, Santiago bezpera egunean, Arantzazun. Zorionak.



Epelde

inpresio ona

IK3


inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

Good morning, Arrasate

Ingeles ikasleak gure artean ugarituz

Gizakiok, komunikatzeko jaiok garela esan daiteke eta gure komunikazio iharduera horretarako erabiltzen dugun tresna nagusia hizkuntza dugu. Denok dugu bizitzaren lehen urteetan ikasitako ama hizkuntza. Hala ere, beste arrazoi batzuk direla medio beste hizkuntza bat ere ikas dezakegu. Beste garai batzutan latina, edota frantsesa bezala, gaur egun nazioarte, enpresa eta beste arlo ugaritan ingelesa nagusitu da, gero eta jende gehiago aurkituko dugularik hizkuntza hori ikasteko ahaleginetan



Hona hemen Ahizke-Cimen egoitza berria

Herrian aukera ugari

Nahiz eta ikastetxe guztietan, gazte gaztetandik ingelesa irakatsi haurrei, bai haur eta bai nagusiak hizkuntza hau ikasten edota sakontzen akademia berezietan ikusiko ditugu. Orain dela bi urte arte Arrasaten eskolaz kanpo ingelesa ikasi nahi zutenek Ahizke-Cim-era joan beharra zuten. Eskola berezi hau 1973. urtean Eskola Politeknikoaren babespean sortu zen, enpresek eta bereziki kooperatibek arlo honetan zituzten beharrak betetzeko. Orduetik hona hazten eta hedatzen joan da eta hasiera batean 200 ikaslerekin hasi bazen ere, iazko urtean 2.100 ikasle izan zituen. Pasa den astean kooperatiba honek, kooperatiba bait da, 2.000 metro karratutan 34 ikasgela dituen egoitza berria inauguratu zuen, hogeitamabost irakaslerekin

bailaran hizkuntzen irakaskuntzan diharduen eskolarik handiena izanik. Ahizke-Cimen ingelesaz gain alemana eta frantsesa ere irakasten dira, hizkuntza hauek ikasten oso ikasle gutxi aritzen bada ere. Edozein modutan ere, herrian ingelesa ikasteko beste bi ikastetxe daude,

ikasgelako lanaz gain, bakarkako lana egin beharra bait dago hizkuntza ikasteko.

Ikastetxe hauetan aritzen diren irakasle gehienak jatorriz Britainia Handikoak dira, unibertsitateko titulazioa eta klaseak emateko ikastaro berezia eginda izaten dutenak. Ingeleseko klaseak ematerakoan hemengo baten eta Ingeles baten artean desberdintasunik egon daitekeen jakin nahi izan dugu eta guztiek, horrek berdin diola adierazi digute, ahozkatzerako orduan jaiogoak izatea bait da. egon daitekeen desberdintasun bakarra.

Hiru arrazoi nagusi

Jendeak ingelesa ikasten horrenbeste ahalegin zergatik jartzen duen aztertzean, hiru arrazoi nagusi aurkitu ditugu, adinaren arabera. Arrazoi nagusia lanerako behar izatea dugu. Hau horrela izanik, enpresek askotan beren langileentzat ikastaro bereziak antolatzen dituzte. Horrela, Fagorrek esaterako, bere langileei ingelesa irakasteko Cim-era jotzen du, nahiz eta langile hauei ingelesa irakasteko erabiltzen diren metodoak ohizkoak baino askoz intentsiboagoak izaten diren. Helburu honetarako Aretxabaletan antolatuta duten ikasgela berezi batzuetan hiru aste irauten duten ikastaroetan, egunean zortzi orduz aritzen dira ingelesa ikasten, dauden baliabide

Hiru arrazoi nagusi daude ingelesa ikasteko, lanerako, bidaiatzeko eta Bilboko Hizkuntz Eskolako azterketak prestatzeko

bata iaz zabaldutakoa eta bestea aurtun.

Hiru zentro hauetan astean bost orduko ikastaroak eskaintzen dira eta beren arduradunen hitzetan nahiko dira hizkuntza hori ikasteko,

aurreratuenekin, hala nola, ordenadoreak, bideoa, filmeak, etab. luza

Bestalde, gazteagoengan Bilboko Hizkuntz Eskolak eskaintzen dituen tituluak lortzea ere pisuzko arrazoia izan ohi da. Titulu honi

esker garai batean ikastetxeetan ingelesezko klaseak eman zitezkeen, gaur egun balio ofizialik ez badu ere, erreferentzia izan ohi da norberaren ingeles maila neurtzerako orduan eta gazte askok berau lortzen ordu ugari ematen du. Azkenik, atzerrira joateko orduan ingelesea behar izatea aipatzen du zenbaitek ingelesea ikasteko arrazoi bezala.

Norberaren beharrak eta ikasteko arrazoiak desberdinak izatean, klaseak emateko orduan programazioak ere desberdinak izan ohi dira, norberaren helburua errazago lortzeko ahaleginetan. Batzuetan hitz egiteko orduan erraztasuna izatea izango da helburua, beste batzuetan berriz, gramatika ikastea eta beste batzuetan oster, administrazio hizkuntza ikastea.

Ez da merkea hirugarren hizkuntza ikastea

Edozein modutan ere, ingelesea ikastea ez da batere merkea suertatzen. Inguruko akademiatan galdetu eta guztietan mila pezetaren desberdintasunaz, kurtso osoa egiteak 54.000 pta. inguru balio du, matrikula eta hiru hilabeteko ordaindu behar den dirua baturik. Nahiko garesti beraz, kontutan izaten badu-

izaten dira eta.

Bestalde, ingeles maila hobetu nahian edota hizkuntza horretan hitz egiteko aukera izateko udaran jende asko Britainia Handira joan ohi da. Era asko egon daitezke bidaia hau

ten bitartean, egunean ordu batzuk libre izaten dituztelarik ingeles klaseetara joateko. Edozelan ere, horrela joandako gazteek makinatxo bat kexa izaten dute eta arazo hauek nolabait konpontzeko Espaniako



Umeak gazte gaztetandik hasten dira ingelesea ikasten

egiteko, trukaketa edota *au-pair* joatea ditugularik erabilienak, bertako eskola batean hilabetea emateak 100.000 pta.tik gora balio bait du, beste era hauek merkeagoak suerta-

Gobernuak iaz *Au-pairen* informazioarako bulegoa ireki zuen Londresen haren eskubideak zeintzuk ziren argitzeko eta sortzen ziren arazoak nolabait konpontzeko. Jonek esaterako *Au-pair* joandako neska arrasatearrak zera azaldu zigun "ni bi hilabeterako joan nintzen, eta hiru aldiz aldatu nuen familiaz, lehen bietan astoak bezala lan egin behar izaten nuen eta ez ninduten batere ondo tratatzen. Egia esan berriro joan behar izango banu ez nintzateke *au-pair* joango". Hau ez da jende guztiak ekartzen duen eritzia, baina sarritan gertatu ohi da hara joan eta birritan edo hirutan etxez aldatzea. Hau ikusirik, jendea bere kasa joan ohi da aspaldian.

Arrasaten ingelesea ikastea ez da batere merkea. Kurtso osoa egiteak 54.000 pta. inguru balio du

gu eguneko klase ordu bat baino ez dela izaten. Diru hau unibertsitate publikoko matrikulekin pareka daiteke. Dena dela, salneurri hau pertsona helduentzako da, haurrentzat ematen diren klaseak merkeagoak

tzen direlarik. *Au-pair* bezala orain gutxi arte jende ugari joan izan da. Gazte hauek familia batekin eman ohi dute Ingalaterran bizi diren denboraldia mantenuaren truke etxeko lanak edota haurrak zaintzen dituz-

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114


Gure jubilatuta eta pentsionistentzako laguntza kanpaina

Aurreko urtetan bezala, eta **urrian zehar**, **J.LARRAÑAGA OPTIKAK** gure jubilatuta eta pentsionistei eskeintzen die:

- .Dohaineko begi berrikustapena teknologiarik aurreratuenaz.
- .Betaurrekoak kristal eta guzti, urruti edo gerturako, 4.900 pta.
- .Betaurreko bifokalak, 7.900 pta.
- .Kalitate handiko kristalak eta egun eguneko armazoiak.

¡Bisita gaitzazu konpromezurik gabe!
BERGARA, ARRASATE eta ORDIZIAko dendetan,
MULTIOPTICAS taldeko bakarrak
DEBA eta GOIERRIra.

San Pedro, 22 - Tfnoal. z. 761575 - BERGARA
J.Carlos Guerra, 1 - Tfnoa. z. 792995 - ARRASATE
Gudarien Etorbidea, s/n - Tfnoa. z. 889988 - ORDIZIA



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

MemesA

79 42 22



Sokoa

Zeharkale estalia. Arrasate

**TXOKO
TABERNA**

Gure berezitasunak
pintxo eta mokau
gozoak

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....


HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ARRASATE
PRESS**

zure astekaria



Oñatin urriak 1ean, Kilometroak 89

Mikel Elkoroberezibar

Oñatin dena dago prest datorren urriaren batean ospatu behar den Kilometroak 89-rako. Urte osoan lanean ibili ondoren "Txantxiku" ikastolakoak emaitzak ikusteko desiatzen daude.

Aurtengo Kilometroak Bittoriano Gandiagak egindako olerki batekin hasiko dira. Egun hortarako ekintza pila bat daude iragarrita: Erakusketak, trialsina, parapente, aintzinako dantzak, jantzi erakusketa, bertsolariak, etab...

Janari, edari eta aparkalekuei dagokienez ez da ara-

zorik izango. Aurtengo berezitasunik nagusia zirkuitu ekologikoa izango da, Aloña mendiaren magalean. Beste gauzarik aipagarrienetakoa ikatz txondorra izango da. Hau egun osoan zehar martxan egongo da. Azkenik, esan behar egun horretarako San Prudentzioko zubia zabalik egongo dela eta Arrasatetik Oñatira joan nahi duen guztiak Urkuluko bidea zabalik aurkituko duela. Besterik gabe, egun ona pasa dezazuela opa dizuegu, Oñatiruntz hurbilduko zareten guztioi.

Kilometroak 89




APARKALEKUAK

Edozein modutan zatozela ere, ez beldurrik izan zure ibilgailuak lagatzeko lekua sobran izango da eta. 17.000 berebil eta 200 autobusentzako aparkalekuak. Zatoz lasai.

SHAHID R. MEHASI 22 urteko Pakistaniarra da. Hamaika urterekin Oñatira etorri zen bizitzera bere gurasoekin. Bere ustez Pakistan eta Euskal Herria oso desberdinak dira. Hala ere, ez zitzaion

gehiegi kostatu Euskal Herriko bizitzari moldatzea, hasieran lagun asko egin eta ondo onartu zutelako. Euskara ere ondo menderatzen du, eta berak dio ez duela zailtasun gehiegirik izan euskara ikasteko. Eskoriatzan Magisteritza ikasten ari da, baina gero ingeles filologia egiteko asmoa dauka. Bere ordu libreetan, begirale lana egiten du Oñatiko igerilekuan, eta mota guztietako kirolak atsegin ditu (xakea, korrika, karatea...).



Pakistanen bizi den bere familiarekin baditu harremanak, argazki eta eskutitzen bidez, baina badu bisita egiteko gogoia.

Kilometroak direla eta, giro aparta somatu du Oñatin. Jendea buru belarri sartua dagoela dio eta dena ongi irtingo dela espero du.

M. E.

SHEILA 34 urtetako Estatu Batuarra da. Orain dela 13 urte euskal kultura, mitologia eta historia ikastera etorri zen. Berriz ere bere herrira joan eta han bi urte igaro ondoren, Oñatira itzuli zen,

bertako batekin ezkondu eta orain bi seme-alaba dauzka. Bere ustez Euskal Herriko kultura eta EEBBko kultura oso ezberdinak dira, Euskal Herriko kulturaren gehien gustatzen zaiona dantzak dira. Ordutegi kontuan ere, desberdintasun handiak aurkitzen ditu. Bere ustez EEBBko jendeak kirol gehiago egiten du, baina hemen ikusten du kirola gorantza doala.



Kalean eta tabernetan dagoen giroak ikaragarri harritu zuen. Bere familiarekin harremanetan segitzen du, eta urtero hara joaten da.

Bestetan, hangoak dira hona etortzen direnak. Berari euskara ikastea izugarriak kostatu zitzaion, eta kilometroei buruz, dena ondo irtingo dela dio eta berak bere laguntza emango duela.

M. E.

AREAK	egun osoan	11etan	12etan	12,30	1etan	2etan	3etan	4etan	6etan
1 IKASTOLA	*Jolas parkea *kukubiltza *Bazkari eta fruitu lehiaketa	*Dantzak Bergara, Arrasate eta Arexabaletako taldeak	*Bertsolariak Lizaso, Murua, Mendizabal *Trikitilariak			*Bazkaria *Dantzak Lapurdiko eta Oñatiko taldeak			*Egan
2 ALTZIBAR	*Artisauak Banastaginak, Albokak, Maketak...								
3 STA. LUZIA	*Jolas parkea *Rockodromoa	*Bertsolariak Telleria eta Peñagarkano *Triksin	*Meza *Pailasoak Azkona taldea *Dantzak Zumarraga eta Antzuolakoak			*Parapent-Atadelta *Bertsolariak Sarasua, Loidi eta Izarzelaiak *Dantzak Bergara, Arrasate eta Arexabaletakoak	*Triksin		
4 ASENSIO	*Gargantua *Ikaz lanak	*Zankoak Bergara *Dantzak Iruñea eta Legazpikoak	*Meza *Pailasoak Takolo, Purruix eta Porrotx	*Dantzak Zumarraga-koak eta Antzuolakoak	*Harrijasotzaileak Perurena eta Zelai *Aizkolariak Olasagasti, Arrospide, Mendizabal *Bertsolariak Telleria, Peñagarkano *Sokatira, *Txingak				
5 S. MARTIN	*Jolas parkea *Umeentzako esku lanak	*Aeromodelismo *Dantzak Lapurdi eta Oñatikoak	*Meza *Sebastepoleko itxeritxoak *Bertsolariak Sarasua, Loidi, Izarzelaiak		*Dantzak Iruñea eta Legazpikoak *Txalaparta	*Bertsolariak Lizaso, Murua, Mendizabal	*Aeromodelismo *Bolo txapelketa *Pailazoak Azkona taldea	*Txanbela	
6 UNIBERTSITATEA	*Erakusketak Zuloaga Dantza jantziak								*Dantzak Lapurdi Iruñea eta Oñatikoak



KANPINA

Gazte sentitzen eta natura beste era batera bizi nahi duzuenontzat sorpresa ederra prestatu dizuegu: Kanpina. Tuertokua baserri ondoko zelaian. Zerbitzu guztiekin: dutxak, taberna, otorduak... Arantzazurako bidean, zalditokietatik gertu eta zirkuitutik hurbil. Zure zain gaude.

Txokolate lantegien historia Oñatin

Euskal Herrian txokolate kontsumoa XVIII. mendean hasi zen. Hasiera batean medizina bezala erabiltzen zen, eta azukrerik ez zuenez, oso mikotsa zen. XVIII. mendearen hasieran txokolatea azukrea eta bolauarekin nahasten zen, aparte-ko estimazioa lortuz. Honela bada txokolatea tabletetan egiten hasi zen. Kakaoa, txokolatea egiteko beharrezko lehengaia, Ameriketako kolonietatik ekartzen zuten. Horregatik, txokolatea ultramarinotan saltzen zen. Garai hartan, txokolatea familia batzuk egiten zuten euren gozodendetan.

Gipuzkoan, txokolate produktioa asko hedatu zen, gozodenda asko ere sortu ziren eta hau horrela izateko garrantzi handia eduki zuen "Real Compañía Guipuzcoana de Navegación de Caracas"ek. Enpresa honek



1932, Nicolas de Lekuonaren diseinua

XIX. mendearen hasieran, batzuk larritu egin ziren, batez ere apaizak, txokolatearen kontsumoa adiktiboa zela esaten bait zuten. Garai hartan, txokolateak ospe handia hartuko du, eta emakumeen tertulietan ezinbes-

XX. mendearen hasieran familia giroko denda hauetatik erdi mailako fabriketara pasatuko zen. Lantegi hauek, hamabost, hoge, hogeitamar langile bitartean edukiko zituzten.

Lantegi hauek, Natalio Maiztegi, Agustin Gereka, "Chocolates Onena" eta Martin Orbearenak izango ziren. Huetaz gain, bazeuden beste familia giroko konfitegi bi: Garaikoe-txea eta Galdostarrena. Azken honek "Zenizero" kafetegian saltzen zituen bere produktuak.

Gerra ostean, famili mailako lantegi hauek jarraituko dute, baina urte batzuk pasa ondoren

desagertu egingo dira. Gerra ondoren bi lantegi handi galdituko dira: Zahor eta Loiola. Hauek ehun edo berrehun langilez osatzen ziren. Loiolak krisialdi gogorra izan zuen eta "Cadbury" konpainia ingelesak hartuko zuen. Geroago, kooperatiba bat sortuko zuten, baina azkenean porrot egin zuen. Zahorrek, bestalde, orain dela hogeitau urte, lantegi berri bat eraiki zuen, eta oraindik lanean ari da gozozaleen zoramenerako. M. E.

CHOCOLATES

Telegramas: GUERCA
Teléfono núm. 445

Guereca

OÑATE (Guipúzcoa)

Europara heltzen ziren produktu denen monopolioa zeukan. Ondorioz Pasaia eta Donostiako portuetara kakao kantitate handia ekartzen zen.

XVIII. mendearen bukaeran eta

tekoa bihurtzen da. XIX. mendean txokolatearen zaletasuna gehitu egin zen, eta 1860. urtean Oñatin zazpi txokolatero aurkitzen ditugu, produkzio txikikoak, hori bai.

OÑATE

Kilometroak 89

ONATI-Urriak 1

BIDE EKOLOGIKOA

Kilometroetarako zirkuituaz gain, beste zirkuitu zoragarri hau prestatu dizuegu. Denetarik ikusiko duzue: 26 zuhaitz mota desberdin, 3 iturri natural, Ubaoko makina etxea ikusteko aukera...Zernahi gauza, Aloña mendiren magalean.

ONGI ETORRI

KILOMETROAK 89-ra

Lagun Aro Aseguruak

Kale berria 4, Tfnoa: 78 30 00 Oñati



**Deba Garaiko
txirrindularien
denda**

Zure denda

San Lorenzo 1 Tfnoa: 78 29 86 OÑATI

J. Beltran: "osasuna izateko aurrezaintze lana garrantzitsua da"

Beltran praktikantea, arrasatear gehienontzat ezagun suertatzen zaigu. Marietan jaiotako arrasatear honek, urte ugari eman ditu inguruko Kooperatibetan, bertako langileen osasun-egoera nolabait zaintzen. Zentro Asistentzian ere, sortu zenetik 13 urtez ikusi ahal izan genuen. Gaur egun nahiz eta ofizialki jubilatuta egon "Plan Mondragon"en dihardu lanean astero hara hurbiltzen denari kontsulta pasatzeko prest.

— *Noiz eta non burutu zenituen ikasketak?*

— Nik ikasketak jadanik heldu samarra nintzela egin nituen. Nire garaian soldaduzka hiru urtekoa zen, nik sanitategian eman nituen hiru urteak. Atsegin nuen lan mota hura, beraz lizentziatu nintzenezan ikastea pentsatu nuen. Jakina, garai hartan ikasteak asko balio zuen, lanean nongoen bitartean egin behar izan nituelarik ikasketok. Hogeitamazazpi urte nituela bukatu nuen praktikante karrera. Valladoridera joan behar izaten nuen azterketak egitera, lantegian honetarako baime-nak ematen zizkidatelarik. Asko eskertu behar diot beraz Cerrajerari, garai hartan lantegi horretan egiten nuen lan eta.

— *Beti aritu izan zara enpresa munduan lanean?*

— Bai, Cerrajeran, tailerrean aritu izan nintzen ikasketak burutu arte, ondoren eritegira pasatu nintzelarik. 1962. urtean Ulgor-era sartu nintzen, gero Lankide Aurrezkira eta azkenik Lagun-Arora. Zentro Asistentzian ere aritu izan naiz 13 urtez.

"Arrasatek, beste herri batzuk baino osasun egoera hobea du. Jendeak bere osasuna zaintzeko zer egin behar duen kontutan hartzen du"

— *Ba al dago desberdintasunik enpresa munduan lan egiteak, osasun zerbitzu publikoan lan egitera?*

— Guztiz desberdina da. Kontsulta lantegian izateaz gain, lanaren ziurtasuna eta higieina zaintzen

ahalegintzen ginen. Hau da, norbaitek anginak edo antzekorik izanez gero, bere lanaren eraginez sortuak ziren aztertzen genuen. Istripu arriskuak ere aztertzen genituen, makinak ziurtasun neurri egokiak zituzten ala ez, etab. Osakidetzan eta antzekoetan kontsulta pasatu baino ez da egiten. Guk aurrezaintze antzeko lanak egiten genituen.

— *Aurrezaintze lana garrantzitsua al da?*

— Oso, gaztelaniaz "mas vale prevenir que curar" esan ohi da eta egia da. Jendeak miaketak egin beharko lituzke urtero urtero. Urte batean gaisotasun ugari ager daitezke eta askotan jendeak duenik ere ez du jakiten. Diabetes gaisotasuna esaterako, batzuetan jaiotzez eta beste batzuetan adinagatik, agertu eta jendea enteratu ere ez da egiten.

— *Arrasatek zure eritziz osasun egoera ona al du?*

— Nire ustez beste herri batzuen baino hobea. Enpresetan burutu izan diren errekonozimenduak direla, Plan Mondragon dela, etab. jendeak bere osasunaz lehen baino gehiago arduratzen da. Guzti honek jendea

hezi egin du. Gehienek badakite zer jan behar den eta zer ez. Honek ez du esan nahi jendeak komeni ez diren gauzak jaten ez dituenik, baina neurri batean; jendeak erretzeari utzi dio.... Prebentzio, mentalizazio eta hezte-lan batzuk egin dira eta on-



J. Beltran

torioak nabari dira.

— *Plan-Mondragon gaur egun zertan da?*

— Beno, orain urte batzuk egin genituen errekonozimenduetan hipertentsioa zutela ikusi genuen pertsonen, berriro egin diegu errekonozimendua beren gaisotasunak zein garapen izan duen jakiteko eta bide batez, neurriak hartu behar diren jakin ahal izateko. Bestalde, Arrasate Pasealekuan dugun kontsulta zabalik dago edonorentzat; hurbiltzen den edonori egiten diogu azterketa eta tentsio altua duela ikusiz gero, azterketa sakonagoa egingo genioke. Aurten Arrasateko Jubilatuei errebisioa egin nahi diegu. Lanean dabiltzan bitartean urtero urtero miaketa egiten zaie. Jubiltzen direnean berriz, beraiez ez da inor gogoratzen. Arrasateko Udalak milioi bateko subentzioa eman digu ikustaldi horiek egin ahal izateko. Ez dakit zenbat jubilatari egingo diogun miaketa, ahalik eta jubilatut gehienei egin nahi diegu, baina betiko arazoak egingo dugu topo, dirua jakina, beraz, diruak ematen duen arte egingo ditugu miaketak.

Aipatzekoa da ere, etxekoandreez ez dela inor gogoratzen, beren lantokian ez bait dute inor beren osasunaz arduratzeko. Beren kontura zaindu behar dira. Baina hori beste kontu bat da.



Egunotan, albiste dugu Jose Antonio Gay

Erreala J. A. Gay fitxatu guran

Arrasatearrak Joko Olinpikoetan parte hartu nahi

“Real Sociedad” atletismo taldeak J. Antonio Gay 19 urteko gazte arrasatearra fitxatu nahiean dabil.

200 metrotan 21 segundu eta 57 hamarreneko marka. 400 metrotan berriz, 49 segundu eta 20 hamarren. Besteak beste, gazte mailako Espainiako txapelduna, eta Euskadiko txapelduna 400 metrotan.

Donostiarrek ekipoa sendotu nahi dute, eta hauxe da lehen aldia Gipuzkoako talde batek dirua eskaini nahi diela atletei ekipoa defendatzearen truk.

Zazpi urte daramatza Jose Antoniok atletismo munduan. Beti ere amateur moduan, kirola maite duelako soilik. Fernando Zufiria izan du entrenatzaile (etorkizunean ere berarekin jarraitzeko asmoa du), eta

Arrasate Kirolakek emandako laguntzaz irten dira aurrera.

Orain aukera berria aurkezten zaio. Ez diote soldata finkorik eskaini. Lortzen dituen marka eta txapelak kontutan izanda, “Real Sociedad”ek primak ordainduko dizkio.

Ez du Arrasatekin alde egin nahi, baina eskaintza onartu beharko: dirua, eta diru horrek eskuratuko dizkion posibilitateak atletismoaren munduan aurrera egiteko. Azken finean markak hobetzea bilatzen du beti kirolariak, eta atletek ere ahalik eta laguntza gehien merezi dute beraien bidea lantzeko. Jose Antoniok, behintzat, argi dauka Bartzelonako Olinpiadetan parte hartu nahi duela, eta ze demontres, ez zaio kalitaterik falta.

■ Emaizta txarrak Pedrusko eta Okendo Kirolak taldeentzat

Ez dio behar bezala ekin Pedrusko taldeak aurtengo denboraldiari. Ligako bigarren ihardunaldian Alaves taldearen aurka 2-0 galdu ondoren, San Andresekoek puntu bakar batez jarraitzen dute.

Neskek ere ez zuten emaitza hoberik lortu Donostia aldean. Alde Zaharreko taldea 1-0eko emaitzaz nagusitu zen. Honenbestez, Okendo Kirolak sailkapeneko azken postuan aurkitzen da, zero puntu eta bi negatiboz.

Datorren asteburuko neurketak, Lantaron-Pedrusko eta Orio-Okendo Kirolak.

■ Saskibaloi taldeak azken entsaiua

Pasa den asteburuan, Arrasate Kirolak saskibaloi taldea Burgos aldera hurbildu zen, bertan Tizona taldearen aurka indarrak neurtzera, lagunarteko partiduan. Ederki asko jokatu zuten arrasatearrek, azkenean 76-90ko emaitzaz nagusitu zirelarik. Aipatu, 22 puntuz Iban izan genuela neurketa honetan saskiratzaile onena.

■ Mungiak 32

Arrasate Kirolak-ek 3

Jipoi ederra jaso zuten Mungian Arrasate Kirolak Rugby Taldeko mutilek. Larunbat arratsaldean jokatu zuten Euskal Ligako lehen ihardunaldia, eta hasieratik Bizkaitarrek garbi erakutsi zieten oraindik ere gauza asko hobetu beharrean daudela. Eskerrak Imanol Aiastuik 3 puntu lortu zituela, bestela hutsen itzuliko ziren Mungiatik.

Larunbat hontan etsai gogorra datorkie Iturripera, Elorrio Taldea. Partidua arratsaldeko 4,30etan.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KIROLDEGI

JATETXEA

Eguneko menua
eta karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

podiuma

Javier Mentxaka, atxintxiketaren plazerra

Zuetariko askori ezaguna egingo zaizue Javier Mentxaka trotean ikustea Mondragoeko zenbait kaletan barrena. Argala, ile hori kizkurra eta begi argiak. Haren korritzeko dotoretasuna eta erraztasunak atentzioa emateko modukoak dira. Atleta suediarren itxura guztia du.

Hamalau urterekin hasi zen korritzen, dagoeneko hogeitamahiru enbor dituen honek. S. Juanak ziren, eta bigarren ailegatu zen atxintxikan egitea gustatzen zitzaiola konturatu zenean. Harez geroztik, hortik zehar ibili da, takarradan, diren pista, errepide, eta bidezidorretan zehar hautsak harrotzen, *"ia-ia droga bezalakoa bihurtzen da; falta zaizun egunean txarto zabiltza"*, dio.

Ume biak izan zituenean, utzi egin zion ia erabat korritzeari. Lana, umeak, korrika... gehiegi zen. Gaur egun ere, ahal duelarik - Amaten egiten bait du lan, hiru errelebotan-, hor ikusiko duzue goizeko bederatziatan S. Viator ikastetxearen atarian umeak laguntzen. Hauek eragindako hiru urteko parentesia gaindituta, berriz ekin zion korritzeari, bere kasa, betiko moduan.

Gehien gustatu zaizkion distanziak 800 m. eta 1.500 m.ak izan dira. Bizitzan bezala atletismoan idolorik ez duen Javierrek, oso gogoko du Sebastian Coe. *"Aouita ere zoragarria da, baina haren nor-*



Javier Mentxaka

tasuna -Gonzalezena bezala- ez zait gustatzen".

Urteak aurrera doazen neurrian, abiadura galdu egiten omen denez, aurtan 5.000 m.tan hasiko da lehiatzen. Neguan krosa egiten du, *"eta oso ondo ibiltzen naiz"*. Errepideetan ere ibiltzen da. Inguruko karre- rez gain, hiru maratoni egin ditu, azkena 2h 39'tan.

Arrasateko keak ez zaizkio gustatzen, *"baina are gutxiago fundizio-koak"*. Oso ondo ikusten ditu goi mailan datozen gazteak: Gay, Maizbide, etab. *"Maratoilariak ere talde polita egiten dute: oro har korrikak oinarri sendoa du Arrasaten"*.

Jende berezia omen, korrikalariak. *"Emazteak behintzat kexatzen dira, 'beti korrikan, beti korrikan', esaten digute, baina hiru egunez edo, etxean atxintxikan egin barik gaudenean, agoantaezinak jartzen garelako edo, korrika egitera bidaltzen gaituzte"*.

Jende berezia, bai.

■ **Gazte mailako Rugby Taldea desagertu**

Hainbat jokalarik Rugbya utzi eta beste hainbat lehen ekipora pasa direlako, Arrasate Kirolak Gazte mailako Rugby Taldeak ez du aurtan Euskal Ligan parterik hartuko. Ahalegin guztiak egin dituzte jende berria animatzeko, baina badirudi ezin izan dutela helburua bete.

■ **Mondrak fitxaketa berriak.**

Mondrak hiru fitxaketa berri egin zituen aurreko astean, taldea sendotu asmoz. Bilbao Athleticetik Aitor Lopez, eta Ondarroako Aurretatik Eneko eta Unai.

Gauzak horrela, igandean Real Unionen aurka neurtu zituzten indarrak Atxabalpen. Arrotxa eta Fedek lortutako golei esker, arrasatearrek bina enpatatu zuten partidua.

Liga hasieran, beraz, hiru puntu eta negatibo bat Mondrarentzat. Datorren astean aukera berria Atxabalpen gure Taldea ikusteko, Ondar- ruko Aurreraren aurka jokatu- ko duen neurketan.

■ **Enrique Alonso Garaile**

Lotus-Zahor Taldeko txirrindulari arrasatearrek irabazi zuen igande arratsaldean Oñatiko "Kilometro lanzaua". Txanda ezberdinak gainditu ondoren, finalera Enrique Alonso eta Paternina Taldeko Jesus Aranbarri heldu ziren. Borroka gogorra bien artean, baina azkenean Alonsok metro gutxi batzuk atera zizkion Azkoitiarrari, eta berarentzat lortu zuen aurtengo txapela.

Denborapasen soluzioak

Bokalak jausi dira

"Goizean porrusalda eta eguardian azak, aise kabituko zaizkik ipurdian galtzak"

**MERKEALDIAREN AZKENEKO EGUNAK
BEHERAPEN HANDIAGOAK!!**



OKIENDO
KIROLAK

Maalako errebala 13. Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

Makina-erraminta munduan aintzindari

Danobat eta Soralue kooperati-
bek, Debako enpresa taldearen ki-
deak D+ S Sistemas elkarte berria
eratu dute. Elkarte honek transfer
linea malguak egingo ditu atomobil-
gintzarako.

Ford eta Fasa-Renault kotxe-
etxeentzako era honetako lineak egi-
tean izan duten esperientzia baiko-
rraren ondorioz, sortu da elkarte
berri hau. Bestalde, Agrozet talde
Txekoslobakiarrarekin kontratua
sinatu zuten "Zeta" bost traktore
eraikuntzan erabiliko den transfer
linea malgua egiteko. Kontratua
1.600 milioikoa da eta estatu honek
makina-erraminta arloan kanpora
egin duen eskaera garrantzitsuentzat
jotzen da.

Debako taldeak 800 lagun inguru
biltzen ditu eta joan den urtean 9.000
pta.ko eskaerak jaso zituen, %50a



Estatutik kanpokoak izan zirelarik.

D+S Sistemas elkartearen geren-
tea Jose M^a Mendia dugu eta Deba-
ko taldea linea hauen aintzindaritzan
etsi nahi dio, era honetan Debakok
egiten duen Makina-erramintak bai
estatuan eta bai atzerrian ere duen

maila teknologiko onari etsi.

Asmo hauek bete ahal izateko
taldearen ikerketa zentroak, Idekok
hain zuzen ere, paper garrantzitsua
bete beharko du.

Galileo Megatoni

FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTROAK

(Aurrezki-Kutxa Munizipalaren Ekintza)

Santa Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59 Arrasate

✓ **Astehenean**

- *Gakorraz-lana
- *Gozogintza

✓ **Asteartea**

- *Jantzigintza
- *Kontsumoa eta elikadura
- *Marrazkigintza eta pintura

✓ **Asteazkena**

- *Bideo-foruma eta ondoren solasaldia. 4etan
- *Larru-lanketa

✓ **Osteguna**

- *Zeramika

✓ **Ostirala**

- *Otzaragintza
- *Marrazkigintza

Beste bi aktibitate: Kitarra eta soinketa

MATRIKULA ZABALIK

Ordutegia: 3,30etatik 9etara.

Autoa, uda eta heriotza

Beti bezala, uda honetan ere asko mintzatu da, dira, gara gai honetaz. Batzuk aurpegi serioz eta tentelkeriak esanez. Beste batzuk txiste itxuraz baina tristezia handiz. Chumy Chumez umore-gileak, adibidez, bi ultramoderno jartzen zituen autoistripu baten aurrean, txatar pilo bihurtutako auto-ari begira. Eta baten ahoan esaldi krudel hau: "Ba, odolagatik ez baltiz, Arte Modernoko museoa egon zitekeen".

Abuztuko zurrunbiloa igaro da eta, ohi bezala, errepideetako hileroko odol-zerga biderkatu egin da. Estatuko komunikabide ofizialak harritu egin dira aurtengo udan iazkoan baino hildako gehiago egon delako. Ni, aldiz, harridura horrek harritu nau. Zeren, atera kontuak, aurtengo udan iazkoan baino milioi t'erdi auto gehiago ibili bada Estatuko errepideetan, eta errepide horiek -salbuespen gutxi batzuk salbulehengoan baldin badaude, istripuen



arriskua areagotu egiten da, hori ikusteko ez dago azitia izan beharrik. Eta datuek ematen duten arrisku hori -zenbat auto eta nolako errepideak nahiko finkoa da, ez du abiada mugatzeak edota "operazio" bereziak antolatzeak konponduko. Autoen eta errepideen arteko proportzioa hobetu behar da, nahiz autoen kopurua mugatuz, nahiz errepideen kopurua eta egoera hobetuz.

Lehen puntuari dagokionez, badirudi autoen salmentak goia jo zorian daudela eta hazkunde bizkorre-

ko zikloaren amaieran gaudela. Behintzat auto-saltzaileak datoren urterako egiten ari diren arriskupenak nahiko apalak dira. Bigarren gaia latzagoa litzateke eta epe luzeagoa eskatzen duena. Badirudi Gasteizko gobernua proiektu mardula burutzen ari dela autonomia-barrutiko hiru herrialdeen arteko errepide-loturak sakonki aldatu, osotu eta hobetzeko. Aspaldiko gabezia batzuk konponduko dituela espero behar da, batez ere hiru herrialde horiek elkartzen diren inguruan bizi garenon mesedetan. Baina oraindik proiektua ari dira prestatzen eta badakigu, jakin, proiektua prestatzetik gauzatzera epe luzea igarotzen dela.

Denborak susmo horiek egiaztatzen baditu, izan gaitezke itxaropen tsu. Baina, bitartean autoistripuz hildakoen kopuruak gora egiten badu, ez dadila inor harritu. Ez dugu horrelako fariseorik behar.

Mikel Intxausti

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

Marmitakoa

Marmitakoa arrantzaleen janaria dugu, sasoi baten arrantzaleek itsasoan euren eginkizunetan zebiltzala, marmita haundi batetan prestatzen zutena.


Marmitakorik ezagunena atun edota bonitoarekin gertatutakoa da, badira hala ere berdela, txitxarroa edo beste arrain urdin koipetsuren batekin prestatzen dutenak.

Elikagai oso aberatsa da gure marmitakoa karbono hidrato, proteina, bitamina eta koipetan.

Gertaketarako era asko daude, sukaldari beste. Lehorreko sukaldari batengana jo dugu errezeta eskatzera, Felipe Sanzengana, Gesalibarreko Sanatorioan sukaldari lan egiten duena.

10 lagunendako osagaiak

- 1 kg. kipula
- kilo erdi piper berde



Felipe Sanz Sanz

- berakatz
- 4 kilo patata
- kilo bat tomate heldu
- kilo bat atun (ahal dela erditik aurrerakoa)
- gatza, olio, irina (koilarakada bat)
- piper hauts gorria, bizi samarra

Salda egiteko: Atunaren hezurra eta buru pusketa bat, kipula apur bat eta porruren bat.

Lehenengo salda egingo dugu eta horretarako behar diren osagai guztiak egosi egingo ditugu.

Beste ontzi batean, oliotan, berakatzak, kipulak, piper berdeak eta tomateak txiki-txiki eginda jarriko ditugu frijitzen. Prest dagoenean, koilarakada bat irin gehituz gero marmitakoaren salda sendoagoa aterako zaigu. Guztiari patatak zatituta bota. Ondoren, irazitako saldarekin batera egozten jarri.

Lehenengo irakin bat eman eta gero su motelean eduki. Patatak ia eginda ikusten direnean atuna pusketatan bota eta 10 bat minututan eginda izango dugu.

Komenigarria da ordu batean edo, egosten uztea.

Morokil taldea

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispes, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12




J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaleko alergia

Lagun—Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

ANDERE

*Bainu eta
sukaldeko
ALTZARIAK*

- *Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.
- *Lehen mailako elektatresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.
- *Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.
- *Diseinu altzarrietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE



KILI-KOLO


Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeko ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKO ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU



amuebladora
mondragonesa

**Zabalik gaude!!
Erakusketa berria**

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi*

Santamaina kalea 36, Tfnua: 79 14 89 Fax: 791489 ARRASATE




**KONTRATAK
OROKORREAN**



Foruen enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE



Kalitate-garantia



YOSU C.B.

Aluminio eta P. V. C. ko arotzeria

Abantailaz beteriko gure leihoek

- * Hotz, zarata, euri eta haizearen kontra babesten dute
- * Europako teknologia aurreratuena P.V.C. leihoetan.
- * Edil-Plastik sistemaz YOSU c.b. aroztegiak eginak.
- * Kalitate prezio erlaziorik onena

Lantegi eta erakustokia: Labe Garaiak. z/g

Erakusketa Berria: Kanpantorpea, 2 (Parrokiaren aurrean)

Loditasuna III

Egun batez Endikari, lantegian ikerketa medikoa egin ondoren, tentsio altua zuela esan zioten; eta ez hori bakarrik, kolesterola eta azido urikoa ere balore normaletatik gora zituela. "Argaldu egin behar duzu", esan zion sendagileak.

Kezkaturik bere emazte Itziarri esan zion etxeratu zenean, eta honek orduan aitortu zion aspalditxoan bera ere ez zela ondo aurkitzen, batez ere indar edo ejertzizio pixka bat egin ondoren. Horrela, ondo pentsatu eta gero sendagilearengana joan zen. "Kilo gehiegi dituzu, hori bai", esan zion sendagileak; Dagokizun pisuan jartzeko ahaleginak egitea komeni zaizu", esan zion, baina soluzio konkreturik gabe. "Jateari utzi", izan zen jasotako aholku bakarra.

Egia esan, ez zuen horrelako lanetan hasteko gogorik, baina Endikaren panoramika ikusirik zeozer egin beharra zegoen, okerragorik gertatu baino lehen.

Batetik eta bestetik eritzi ezberdinak jaso zituen, eta hara non ja'ituen duen Bilbon "mirariak" egiten di tuen espezialista bat dagoela. Animaturik, hara deitu eta esandako egunean kontsultategian agertu zen.

Galdera pilo bat egin zion, ondo miatu, tailatu, pisatu, tentsioa hartu eta analisi batzuk egiteko esan zion espezialista horrek.

Handik egun batzuetara analisisien emaitzekin berriro kontsultategira joan zen eta bere tratamendua jaso: orri batzuetan inprimaturik jan behar ez zituen janarien zerrenda eta frasko bat kapsulekin, egunero haie-tako bi hartzeko aginduarekin. Garesti xamarra zen, kapsulen konpo-saketa sekretua, sanital errejistrorik eta izenik gabekoa... Baina beno.

Tratamendua hasi zuen eta egun batzuk barru kilo pareta galdu zituen eta pisua galtzen jarraitzen zuen.

Soluzioa aurkitu zuela zirudien. Ez zen zaila jarraitzea. Egia esan, beste gauzatxo batzuk nabaritzen ere

hasi zen: okerrago lo egiten zuen, edozer gauzatatik urduri jartzen zen eta haserrea ere errazago etortzen zitzaion, baina bat bestearengatik...

Baina denboraz, kiloak galtzea-ekin batera "gauzatxo" haiek gero eta garrantzi haundiagoa hartzen ari ziren: nerbioak beti sutan, insomnia gero eta haundiagoa eta oke-rrena urduritasuna, eta tripako min hura... Horrela, berriro sendagi-learengana joan behar zuela erabaki zuen, oraingoan barme-mediku ba-tengana, etxeko laguna bera, eta ho-nek kontsulta bukatu ondoren argi eta garbi esan zion: "Itziar, hartzen dituzun kapsula horiek anfetaminaz eta tiroidesen estraktos konpo-saturik daude ia-ia seguru; argaltzen ari zara, baina horrela jarraitzekotan zure osasuna guztiz hondatuko da. Tratamendu hori utzi eta hemendik aste batera etor zaitez berriro, beste soluzioren bat bilatuko dugu; hurrengo astean esango dizut".

Eukeni eta Arantza

YAMAHA	sonora	PANASONIK	CEC	MUSIMA
KEF	Harman/Kardon	ONKYO	Vegas	
QUAD				EGI
	baile	Clener	CASIO	NAKAMICHI
Mission	Goodmans		BASF	Ortela
HONNER			Polytone	Televes
Zimmerman				LARK
	Fujitsu			Rotel
Cyrus				Fox
				MORESCII
JAMO	JBL	PIONEER	KELLER	PHILIPS
TEAC				Ortofon
carol	TORQUE	Admira		JUGGS
Hantarex	Alpine	Estrella	KONIKA	UHER
Tensai	MELOS		SHINTON	
Fonestar			Otalora kalea Tfnoa 79 29 09	

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

lurrundegia, opariak jostailuak

Z a r r a o a

apaindegia

Tfnoa: 79 12 19

**SAMEGO
GARBIKETAK**


Alfonso X. Jakintsua, 5
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE

Bizikletaren mantenua

Bizikleta egoera onean mantentzeko erabileraren arabera garbitu beharko duzu, mugimendu handia eskatzen duten aldeak katea ez daitezenean koipe edo zikinkeriagatik.

Garbitzeko trapu zaharrak, esponjak eta aginak garbitzeko zepillo zahar bat beharko dituzu. Bizikleta gurpilez gora ezarri eta eskulekua eta aulkitxoa plastikoz estali babesteko. Gainera, koipea kentzeko parafina edota koipearen kontrako produkturen bat erabil dezakezu. Pintzela erabili lehor dagoen zikinkeria garbitzeko. Gainontzekoak uraz garbitu. Berdin oinpekoa eta gurpilen ardatzetan. Ondoren, trapu batez bizikleta lehortu eta pintura dagoen aldeetan dirdira atera arte igurtzi.

Bizikleta erabili behar duzunean gurpilak eta frenoak (balaztak) begiratu, zer gertatuko ere. Honetaz gain, olio bota eta pieza txikiak lehor



dauden begiratu eta behar izanez gero, estutu. Gurpilak ondo puztuta dauden begiratu: ondo puztu zula-turik gura ez baduzu.

Balaztak

Zapatek uztaitik 3 mm. tara egon behar dute. Torloju askatu eta dagokionean ezarri. Bizikleta ba-

koitzak bere sistema badu ere, erreza da tenkatzea, mugitzea, eta egokitzea.

Horrela ba, eragiketa guzti hauek betez gero, bizikletaren mantenu egokia lortuko duzu, ezelako arazorik gabe, eta mendi zein errepedeetan lasai ibiltzeko.

B. T. T

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 12 32

PANCRACIO

Gizonezkoentzako
ilemoztailea
Modako mozketatan eta
labana mozketatan
trebatua
Kontzeziño4, Tfnoa: 79 72 79

M **ARENAZA**
A
Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

PAZI-OLA SA

Zaldispe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak


ARETXABALETA

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.

 **LAGUN ARO**
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkie Taldekoa

Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZALIAK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTROA

Miren Arrieta

Puntako tratamenduekin: Zelulitisa eta argaltzeko sistema.

Aurpegiko lifting ez-kirurgikoa.

Gainera, estetika-zerbitzu zabala.

Zatoz eta kontsultaiguzu

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

TITARE

LENTZERIA FINA

Olarte kalea, 8
ARRASATE

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

Maiatz

ILEAPAINDEGIA
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



HAURTOKO
ARANBURU
Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

TALLERES AGA, S.A

Zerreilgintza aratzeko
gaiak

Legarre pabiloi Industrialara
Tfnoa: 79 02 22
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- **Pisua alokairuan behar da.** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- **Nezkez osatutako pisu bila ari naiz** Arrasaten. Tfnoa: 79 20 11. 296 ext. 9etatik letara edo 2etatik Setara.
- **Pisua osatzeko lagun bila gabiltza** (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolas.
- **Neskez osatutako pisu bila ari gara** Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitzekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik Setara bitartean)
- **Zarautzen, erdialdeko pisua alogeran** (igogailu eta guzti). Irailean 100.000 pezeta. Interesatuak deitu 83 17 67 tfno zenbakira. (Eguerdia aldera edo arratsaldeko 6etatik aurrera)
- **Pisua salgai Aretxabaletan, Portasolen.** Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- **Arrasaten erdialdean pisua salgai,** Banco Bilbaon. 115m2, garajea eta trasgela. Tfnoa: 79 51 21
- **Pisua alogeran hartuko genuke** Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera
- **Pisua salgai Munar inguruan.** 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- **Pisua salgai Uribarri kalean.** Hall, sukalde, bainugela, 3 logela, egongela, eta 32m2ko terraza. Tfnoa: 70 04 70. Arratsaldeko 6'30etatik aurrera deitu.
- **Bilbon pisua osatzeko neska behar** dugu. Informazioa nahi izanez gero, deitu 79 09 25 tfnora. Bazkalorduan

- **Arrasaten pisua alogeran hartuko** genuke, irailetik aurrera. Tfnoa: 79 90 36-79 30 01
- **Pisua edo gela,** etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Ion.
- **Pisua alokairuan behar dugu** altzari eta guzti. Tfnoak: 83 18 95 eta 88 45 55.

LANA

- **Pertsona bat behar da** etxeko lanak egiteko. Orduka. Deitu 8etatik 11etara, 79 98 83 tfnora.
- **Neska edo emakume** euskalduna behar dugu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dei telefono honetara 79 88 14 gaueko 8etatik aurrera.
- **Umezaintza haur-eskolak,** bazkal ordu-rako laguntzaile behar du. Baldintzak: Umeekin harremanetan ezagupena eta euskeraz hitz egitea. Kurrikuluna bidali. Jose Luis Iñarra Pasealekua 30-32. Epea Irailak 21 arte.
- **Emakume edo neska** behar da etxeko lanen eta hiru haurren ardura hartzeko. Euskaraz baldin badaki hobe. M. Kruz Rodriguezengana zuzendu. Erguin kalea, 3 bis. 3.a.esk.
- **Pertsona arduratsua** eta euskaraz dakiena behar dugu haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko. Tfnoa: 79 86 86
- **Bisuteria salduz** lan egin nahi baduzu, deitu 79 68 45 tfno zenbakira.
- **Euskaraz dakien** emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- **Neska arduratsua** haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- **Neska arduratsua** etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.

- **Bi neska** behar dira bi etxetarako. Dei ezazue telefono honetara 79 88 14. Arratsaldeko 8'30etatik aurrera.
- **Emakumea behar dugu.** 8etatik 3ak arte. Premiazkoa da. Tfnoa: 79 34 99

SALEROSKETAK

- **Motorra salgai,** Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- **Bizikleta salgai.** egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- **Senar-emazte logela** salgai egoera onean. Tfnoak: 79 48 92-79 51 50
- **Kanadiar kanpin denda salgai** (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- **60 W-ko Roland kitarra** anplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- **Liburu bilduma salgai.** 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96

DENETARIK

- **Raider 2 WD auto-irratia kontrolatua** salgai, Challenger 250 irratiaz eta 7,2 boltiotako 2 bateriak. Kargadorea opari gisa. Dena merke. Deitu 79 52 31 Tfnora. Iban.
- **Armonia klaseak jaso nahi badituzu** (1,2,3 eta 4.maila) deitu 79 27 88 telefono zenbakira.
- **Irungo ikastolan kontratu finkoaz** lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin "permuta" egingo luke. Interesatuak dei 79 26 59 tfnora.
- **Vicente Velasco Pineda ez zen** uztailean hil, irailan 18an baizik. Mikel Coronado Velasco

ARRASATEN HILDAKOAK

- †
- Tomas Astaburuaga Odriozola
85 urte. Irailaren 19an
 - Pedro M^a Morales Ramon
40 urte. Irailaren 20an
 - Jose Atxa Zubia
82 urte. Irailaren 22an
 - Ceferino Martin Blazquez
45 urte. Irailaren 22an
 - M^a Luisa Asorey Garate
84 urte. Irailaren 24an
 - Iñaki Bolinaga Urkiola
65 urte. Irailaren 26an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

**Arrasate Pasealekua 3 bis, etxebehoa.
 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64**

Famauen ahotik



Sabino Garai, Angel Elorza Legazpiko artzakin

SABINO GARAI (Xabin Zeleta), Gerra denporako eta gerra osteko kontuek

Sasoi bateko hermandarak

Baserri danak izeten zittuan sozio. Hermandaran txahalak ez, gañetiko ganau guztiek "tasau" eitten zittuan. Seguro moruko zerbait zuan, halan ganaue kendu bierra suertau ezker, tasautekue jasoten zuan. Okelie barrez aprobetxetako moruen egon ezker hermandarakuen artien partiruten zuan.

Gerra denporan "Morse" ikesi
"Amaiur" batalloiekin ibili nitzuan ni eta Aramaxon "Morse" ikasi naixuan. Banderifekin, akordeoiekin eta argixekin eitten zittuan seiñak. Akordeoie esaten gutzen trastioi gabien ebalten gaixuan. Botoie zapaldu, tiretu eta argi txiki batek urteten juan. Txixixe izen bier bestela danak ikusiko laukiek eta.

"Sabino Arana"-ren gorpue zainketan

Kabue nitzuan ni eta egun baten Eibarko "topete" tenientie etorri jatan, etxakixat zer ein bier gauela esanaz. Ezer garbik ez naixuan jaso bañe laister juen gituan kapitana, tenientioi eta hirurok "Sukarrieta" ondoko baserri batera. Kapitanak orduen: "Hemendixik haraxe egon biedo zue zueik".

Gero suertau zuan konpañia danetako konfiantzazkuenak ero... han geontzela.

Inguru guztie zerkaute gaukan, inok zetan gabitzen ez gakixela.

Gero jakin gaixuan, itxurie Francon tropak abanzauaz jatozan eta etzuan komeni "Sabino Arana"-n

hazurrek hartu zeixien, eta gu ba inguruek bijiletan egon gituan hazurrok beste leku batera erueteko atara arte. Sekule ez gaixuan jakin nora ezkutau zittuen.

Gerra ostien, baserriren karretero

Karretero lanok etxeko libertadie zelau auen izeten zittuan. Hillien 8, 10 egun ataraten bazittuan libre, haretxeik karretero.

Lenengo parte hartu nauena "Altubeko Areztuixe" izen zuan. Gero piñuen entresakak eitten be bai. Rekorra eindde gazak 2,50ko piñuekin, 101 biejetan 110 metro kubiko. Karriuen irixekin eitten gaixuan, ondo perraute gañera.

Aldatza ero suertau ezker "puntekuek" ebali bier, normalien beste iri pareja bat edo zaldixe izeten zittuan.

Orduen Mondrauetik Elorrixo-ra teilla karriuen be asko eitten zuan eta Kanpazar gañera artekue puntekuekin ein bier.

Harañokue einddekuen 3, 4 pta pagau eta puntekuoi bueltau eitten zuan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Sasoi baten Altos Homos fabrikatzen ikatz lapurretan eittia oso normala ei zan, eta eitten etzebana ton-totzat hartzen ei zan. Behin serenuak lapurra harrapatzen dau "in fraganti" ikatzpillan, bertako langile ondrau eta ezaguna bera.

- Baiña fulano, hi be lapurretan?
- Hara -kontestatzen dotsa larri eta estu- goiko pisukuak pe harrapatzen dabela, behekuak pe bai, nere andriak etxostak bizi izaten be lagatzen.

.....

Ba ei zan fabrika horretan erderaz tautik pe etzekixen andra mondrauetar bat, garbittasun lanetan ibiltzen zana. Behin bi erdeldunen arteko demanda zaratatsu bat entzuttia tokau jakon parian. Gero hola kontatzen ei eban ikusittakoa:

- Harek esaten zotsan esatekuak... Jeseus!
- Zer esaten zotsan ba?
- Karbooon!, karbooon!, ikatza harrapauko eban itxuria ero...

.....

Atxabaleta-ri konejuak harrapatzen zotsen konejutegittik.

"Redios, harrapauko juat pa lapurra". Eta baitta harrapau be, gau morduia lapurzain pasauta.


Juan Martin Elexpuru

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE





Oñatiko Murgia Auzoa

Domeka honetan ospatzen den **KILOMETROAK 89**an toki ederrak ezagutzeko aukera izango du Oñati aldera hurreratzen denak. Zirkuitoaren barruan herriko kaleak ezezik baserri-giroko auzo batzuk ere aurkitzen dira; horien artean Aloña mendi-katearen barrenean, paraje lau samarrean eta errekatxoz zeharkaturik dauden Berezaio eta Murgia auzoak ditugu aipagarrienak. Eguraldiak

laguntzen badu, paisaia bikainak ikusi ahal izango dira inguru hauetatik: Aizkorri, Aloña, Orkatzategi, Kurtzebarri, Anboto, Udalaiz, Gorostiaga eta beste zenbait mendi eta tontor. Bestalde bidean zehar hainbat baserri dotore, ermita polit, soro eta zelai, baso eta arboladi eskainiko zaio ibiltariari bere atseginerako. Adibide gisa, argazki honetan duzue Murgia auzoaren ikuspegi bat: aurrekaldean Jauregi baserria, ezkerretara Asentzioko ermita eta atzekaldean Udalaiz mendia

piramide baten itxuran. Esan, azkenik, Asentzioko ermita horren aldamenean egun hauetarako ikatz-txondor batzuk egin dituztela aintzina ikazkintzan jardundako oñatiar batzuek.

Jerardo Elorza

J. R. Galarza Arrazola

Kirurgia ortopedikoa eta traumatologikoa

Hasi: Irailaren 5ean

Kontsultak: astearte eta ostegun arratsaldetan

Ordua: aurrez eskatuz

San Vicente Ferrer 4 behe. Esk. 79 27 67 Arrasate

**ARRASATE
PRESS
astero zuekin**

Parques y Jardines S.A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**


Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94 - 6819082 ABADIÑO (BIZKAIA)

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

TALLERES AGA, S.A

Zerreilgintza aratzeko gaiak

Legarre pabiloi industrialak.
Tfnoa: 79 02 22 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errebala 11, Tfnoa: 79 20 56

RAFAEL LORENZO

MEDIKU

ODONTOLOGOA


Zarugalde 3, 1. B.
Tfnoa: 79 35 80
ARRASATE

LASTER ZUEKIN

K
L
I
N
I
K
A

D
E
N
T
A
L
A

ARQUERO Anaiak ERAIKUNTZAK



Araba Etorbidea 40, Behea
Tfnoa 79 01 51 Aretxabaleta



*B. A. C.-i, aspaldiko partez ahaztuxeago
nuen amankomuneko iraganazeen
oroimenez*

Paradisu berdeen hezetasuna
erakutsi zenidan, maitea.
Biluztearen nekea, laztantzearen goxoa,
batzearen errea.

Tunelpe larrosen epeltasuna
eskeini zenidan, kuttuna.

Atzoaren mikatza, egunaren ekia,
geroaren astuna.

Begiotan igeri genuen
joan-etorri zenbagabeak.
Azalez-azal galdu nintzaizun
gori gorriaren bila.
Ezin ezaba zaitut
egunetik egunera.

Dunper Limard

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

“PAL”

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea,3 Tfnoa 79 31 99

TKLN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Ofseta

Ferrerias, 23
Tfnoa: 79 46 62 ARRASATE

■ **Plazarik plaza:** Herriz herri ibili zaizkigu ETBren kamara eta ekipoak uda honetan, grabatutako bariedade saioa larunbatetan eta baita igandetan ere eskaini digutelarik. Ideia ez da txarra: ETB herrietara hurbildu eta, hauek protagonista senti eraziz batera, era askotako musika, dantzak, txisteak eta ikuskizunak eskaini.

Ideia polita, baina ez dut uste ETBri bat ere ondo irten zaionik. Eskenatokiak leizezuloa ematen zuen, aurkezleak ere jantzi ilunetan jantzirik askotan pena emateko moduan, arazo teknikoak maizegi, efektu berezi kaskarrak, aukeratutako abeslariak eta, halamoduzkoak zenbaitetan. Pena da, baina saio hau ez da ETBren programarik onenen zerrendan sartuko, are tamalgarriagoa, ideia ez bait zen bat ere txarra.

■ **Ibiltari bakartia.** Ia erabat ahaztua nuen txikitako komikiak irakurtzeko nuen zaletasuna. Genuen esaten badut zuzenago ibiliko naiz, zeren eta gure atarian bakarrik, asko ginen komiki irakurle amorratuak. Laster ikasi genituen salerosketaren arauak. Noizbehinka merkatu txikia antolatzen genuen: saldu ez genuen ezer saltzen, baina bai trukatu. "*Jabato* hau gura baduzu, hiru *Pumbyren* truke" edo *Capitan Trueno* bi *Red Ryder* baten truke... Modak, koloreak, kalitateak... markatzen zuten merkantziaren balorea. *Superman*, *TBO*, *El Principe Valiente*, *Roberto Alcazar y Pedrin*, *Hazañas belicas*... ziren horietako batzuk.

Estimatuenetariko bat *El Llanero Solitario* zen, Mexican argitaratua, kolorez. Mozorrodunaren ondoan Toro lagun indiarra eta *Plata* zaldi paregabea.

Ostiral hauetako batean telebistan ikusteko parada izan dut, baina marrazki bizitan. Ez da gauza bera, tartean zortzi urteko nintzen mutiko hura betiko (bai?) joan delako. Telebistan sortzen duen eragina desberdina da, ez dut eskasagoa esango, irudiak estandar samarrak diren arren. "*Toro*", mozorrodunaren lagunak ez du izen hori "*Tentel*" baizik, orijinaletik hurbilago. Kontuan izan jatorriz, *The lone Ranger*-en lagun indiarren izena "*Tonto*" zela. *Silver* zaldiaren izena *Plata* zen guretzat. ETBn "*Harri Txuri*". Eta horrela... "Hasi bitez dardarka gaizkileak justiziagile mozorroduna bait dator..." Jope, zelan pasatzen diren urteak!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Gauari biziz dario.** Ostira-lean, ETB lean, gaueko 10etan. Zuzendaria: Arthur Penn. Antzesleak: Gene Hackman, Susan Clark, Jennifer Warren. Harry Moseby, detektibe pribatu eran lan egiten duen futbolari ohia, aktorea batek kontratatuko du, droga kontutan sartua dabilen alaba aurkitu dezan.

■ **Rockabero.** ETB lean, larunbatean, arratsaldeko 16,55tan. Rockaren munduko azken berriak ezagutzeko aukera ona eskuratzen digu programa honek. Bideoak, aktuazioak, elkarrizketak... Gazte eta ez hain gazte zareten guztiontzat.

■ **Winblendon urtez urte.** ETB lean, igandean, gaueko 21,35tan. Saio hontan Winblendoneko tenis txapelketaren urtez urteko laburpena eskaintzen zaigu. Horrela, gaur egun jokatzeko ez duten tenislari asko gogoratzeko posibilitate aparta: Santana, Nastasse, Evert, Borg, eta Connors edo McEnroeren garai onenak pantaila txikian.

bideoak



Polizi Akademia Eroa 3-

Hemen duzue serie honen hirugarrena. Dirudienez Akademia arriskutan dago gobernuak agindutako aurrekontu mozketak direla eta, eta gure polizi koadrila hau prest dago edozer-tarako, beren bihotzeko eskola salbatzeko asmotan. Dagoeneko aspertu ez bazarete, on dagizuela. Ezin besterik opatu.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

G		Z		N		P		R	R		S		L
D			T			G		R	D				N
	Z		K,			S		K		B		T	
K		Z			Z	K		K		P		R	
D		N		G		L	T	Z		K			

Bokalak jausi dira

Beharbada aurten ez duzu lortu soberan zenituen kilotxo horiek kentzea. Bada, hurrengo udan lirain eta panpox egon zaitezten, hemen doakizu aholku bitxi bat. Jausi zaizkigun bokalak ongi ordenatuz agertuko zaizu.

Behar dituzun bokalak: A A A A A A A A A A A A
 E E E E E
 I I I I I I I I I
 O O O
 U U U U

(Soluzioak 21. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
 Martxoaren 21etik
 Apirilaren 20ra

Saiatzen ez bazara, damutuko zara. Hainbeste buelta gai berari emanda, argi eduki beharko zenuke. Baduzu erabaki bat hartzeko ordua.



LEO
 Uztailaren 23tik
 Abuztuaren 23ra

Proposamen bat egiten badizute, ongi pentsatu ezer erabaki baino lehen. Ondorioak bai miragarriak, bai hondagarriak izan daitezke.



SAGITARIUS
 Azaroaren 23tik
 Abenduaren 21era

Ekonomi arloan larri zabiltza, oporretan, utzi zenituen zorrak orain ordaindu behar. Lanean oso giro ona duzu lankideekin.



TAURUS
 Apirilaren 21etik
 Maiatzaren 20ra

Zulo beltz batean sartuko zara joeraz aldatzen ez baduzu, gauzak serioago hartu beharko zenituzke eta ez denetik pasatu.



VIRGO
 Abuztuaren 24etik
 Irailaren 23ra

Etxeko arazoak zure planak aldatzera bultzatuko zaituzte, azkenengo momentuan gauzak zuzentzen hasiko direlarik. Ez zaitetz larregi kezkatu.




CAPRICORN
 Abenduaren 22tik
 Urtarrilaren 20ra

Konpromezu asko duzunez ezin dituzu denak bete. Hori dela eta, lagunak galtzen ari zara. Denbora libre gehiago lortu beharko zenuke.



GEMINI
 Maiatzaren 21etik
 Ekainaren 20ra

Hartu duzun bideari jarraitzea oso ondo dago baina aldamenekoak zapaltzen ez badituzu, hobeto. Zure esku dago besteekiko harreman onak gordetzea.



LIBRA
 Irailaren 24etik
 Urriaren 23ra

Azken aste hauetan lortutakoa arriskuan jartzen ari zara. Ondo pentsatu dena pikutara bialdu baino lehen eta ez zaitetz moztu norbaiti ezetza eman behar badiozu.



AQUARIUS
 Urtarrilaren 21etik
 Otsailaren 19ra

Aprobetxatu orain zauden egoera, ezinobea da eta. Joan zen asteo disgustua ahaztu eta proiektu hauei ekin iezaiezu. Fortuna alde duzu.



CANCER
 Ekainaren 22tik
 Uztailaren 22ra

Nahiz eta berri baten egon, honek ustekabeen harrapatuko zaitu, beraz, edozertarako prest egon eta ez buelta gehiagorik eman.



SCORPIO
 Urriaren 24etik
 Azaroaren 22ra


Pertsona zoragarria ezagutuko duzu laster, baina ez estutu, nahi baduzu berarekin egon utzi libre, berak aukera dezala.



PISCIS
 Otsailaren 20tik
 Martxoaren 20ra

Aste hau lasaiegia irudituko zaizu, ez aspertzeko, zerbait asmatu beharrean aurkituko zarelarik. Aukera ezin hobea kirolarekin harremanetan jartzeko.

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ